1919tik | 2.570 zenbakia | 2017/10/15 | 3,90 € | argia.eus

ARGIA

ARGIA EGUNA GASTEIZEN

KOMUNITATEA FESTAREN SALTSAN

02570
9 771578402 139093

ASKEROCK

ez gara libre izango haiek **ASKE** izan arte

2017 URRIAK 21 | MENDIZABALA, GASTEIZ

RIOT PROPAGANDA
ESNE BELTZA MAFALDA
ZOO ESKEAN KRISTO
WILLIS DRUMMOND
TXARANGO BAD SOUND

LAGUNTZA AURREZ 16€ BERTAN 22€ OHIKO LEKUTAN ETA INTERNETEN SALGAI
(SARRERA EDALONTZIA BARNE)

WWW.ASKEROCK.EUS

BABESLEAK naiz: hala bedi GARA muska ARGIA TOPATU INFO ALEA berria LAGUNTZAILEAK

ARGIA

2.570 zenbakia | 2017/10/15

PANORAMA

4 Asteko argazkia
6-9 Aktualitatea
7 Fauna publikoa
10 Net Hurbil: Parisera gaueko trenean joan nahi dut

IRITZIAK

17 Mikel Zurbano
18 Haizea Nuñez
19 Endika Alabort Amundarain Miren Artetxe

Kataluniako independentzia prozesua: zeintzuk dira gakoak?

AZALEKO ARGAZKIA: DANI BLANCO

38 DENBORAREN MAKINA
40 BIZI BARATZEA
42 ARGIA KOMUNITATEA
48 KULTUR KRITIKA
50 ZUZENEKO EMANALDIA
51 DENBORA-PASAK
52 ARGI-KONTRA: JUAN LUIS OLARAN
54 BERANDUEGI

SAKONEAN

12 | Safia Nafa Aali, Mendebaldeko Sahara: "Kultur balioak babestu behar ditugu iritzi politikoen gainetik" / Miel A. Elustondo

21 | Argia Eguna: Komunitate oso batek bultzatutako kazetaritza independentea / Itsaso Zubiria Etxeberria

27 | Gorputza orekan mantentzeko, betaurrekoak / Ainhoa Mariezkurrena Etxabe

28 | Daniel Pardo: "Bartzelonan, gaur egun, ezinezkoa da turismo jasangarria" / Lukas Barandiaran San Roman

30 | Palestina: Ur bila basamortuan / Jaume Gelabert

34 | Zergatik ikusten da Kataluniatik posible Euskal Herrian ezinezkotzat jotzen dena / Estitxu Eizagirre Kerejeta

36 | Hizkuntza Eskubideen Protokoloa: Zertan da urtebete geroago / Jon Ander de la Hoz

44 | Marketina beldurrezko filmekin akabatzen ari da / Gaizka Izagirre

46 | Arte iruzkina: Elena Asins / Xabier Gantzarain

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

Gipuzkoako Foru Aldundia

DOAN ETA LIBRE
ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea.
Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre.
Erredakzioa: Andoni Mikelarena, Axier Lopez, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Miren Osa, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.
Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco. **Produkzioa:** Antza S.A.L.
Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte, Marijo Aiertza.
Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
Idazkaritza: Aloña Soraluze, Bego Zuza. **Web garapena:** Asier Iturralde.

HELBIDEAK:
Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545.
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.
Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.
Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:
Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetzak: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus.
Interneten: www.argia.eus.
Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.
Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

ARGIA KIDETZA:
Kidetza harpidetzari lotuta egon beharrean, ARGIA komunikazio proiektua indartzera dago lotuta. Partikular eta kolektiboek, ahal duten eta egokitzat duten ekarpen ekonomikoa eginez, ARGIAk argitaratzen dituen kazetaritza lanak (aldizkaria, Larrun, Aktualitatearen Gakoak) jasotzeko aukera izango dute. Batez beste, ARGIA Jendeak 12,50 € jartzen ditu hilean proiektua indartzeko.
Erakunde publikoen kasuan, ohiko sistemari eusten diogu. Harpidetza tarifak: ARGIA astero (150 € urtean), ARGIA hamabostean behin (80 € urtean) eta ARGIA hilean behin (42 € urtean).

Gracias por su compra
2 KILOS
BELENsm
CAIMAN

PANORAMA

Pertsona hil zen eta mitoa jaio

Urriaren 9an 50 urte bete dira Ernesto Guevara de la Serna Boliviako La Higuera mendialdeko herrixkan hil zuela Boliviako armadak, AEBetako CIAren laguntzaz. La Higueratik Vallegrandera eraman zuten gorpua. Han Susana Osinaga erizainaren eskutan utzi zuten. "Ez nekien zein zen. Oso zikin zegoen. Garbitu nuen, formola injektatu eta arropaz aldatu nuen. Ondoren kontu handiz garbitokian utzi nuen jendeak ikus zezan. Geroago eskuak moztu zizkioten eta La Paz-era bidali zituzten bere identitatea egiaztatzeko. Egun, jakitun naiz bizi izan nuen une historikoaz". Lurperatu zuten lekua 28 urtez ezkutuan egon ostean, 1997an Kubako Santa Clarara eraman zituzten munduko iraultzen ikur bilakatu zenaren gorpuzkinak. Irudian, Osinaga, La Higueratik kilometro gutxira daukan dendatxoan, orduko argazkia eskuan duela.

Argazkia: Ura Iturralde Larrañaga · Testua: Axier Lopez

"Nik sinesten dizut" lelopean, indarkeriaren zazpi biktima emakumezkok euren testigantza eman dute, Foro Sozial Iraunkorrak antolatuta.

"Ni asasinatzen saiatu dira, sexualki bortxatzen saiatu dira, eta gogoan daukat beti esaten dizkidaten esaldiak: 'Putakumea, akabatu egingo zaitugu, baina lehenago bortxatu egingo zaitugu'"

Lolita Chávez, Guatemalako errefuxiatua

"Urteotan presenteen izan dudan sentimendua errua da. Errua ez defendatzeagatik, nahiz eta nire burua defendatu nuen, familiari eragingo nion minaren errua, existitze hutsaren errua"

Maddi, bortxaketaren biktima

"Txikitu eta kuestionatu ninduten. Nintzen guztia apurtu zuten"

Ixone Fernandez, Poliziak torturatua

LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS

La Naval konkurtsoan eta langileen etorkizuna kolokan

Urko Apaolaza Avila
@urkoapaolaza

La Navaleko langileek etorkizuna oso beltz dutela badakite, enpresak konkurtsoa aurkeztu baitu, horretarako epea agortuta. Baina arnasaldi txiki bat izango dute hala ere. Sei hilabetez beharrean, etxera hiru hilabetez bidaltzeko akordioa adostu dute zuzendaritzarekin, eta horrez gain Living Stone ontzia beraiek –eta La Navalen hornitzaile eta azpikontrata ugariek– amaitzeko bermeak ere bai.

Kable-ontzia asteazken arratsaldean atera zuten Sestaoko ontziolatik eta Santurtziko moila batera eraman dute jabearen eskariz. Duela aste bi Tideway armadore belgikarrak ezkutuan eta baimenik gabe atera nahi izan zuen ontzi erraldoia, La Naval konkurtsoan sartuz gero amaitu gabe geratuko zen beldurrez. Sei edo zazpi hilabeteko lana geratzen da oraindik ontzia erematatu arte eta ontziolatik kanpo egingo dute hori.

Zuzendaritzak denbora irabazi nahi du, hurrengo urteari begira Herbeheretako armadore batek bi draga enkargatu baitizkio eta hori finantzatuko duen inbertitzaile bat aurkituko balu aurrera jo ahal izango luke.

Manifestazioa Barakaldon

Barakaldon ehunka lagunek manifestazioa egin zuten joan den astean, La Navalentzat irtenbide bat eskatzeko. Ontziolako ia 300 langileez gain, beste ehunka aritzen dira hornitzaile gisa eta itxierak "Ezkerraldearen heriotza" ekarriko lukeela diote.

"Presoaren familiarentzat zigor gehigarria da urruntze politika"

EUROPAKO PARLAMENTUA

Bergeron txostena onartu du Europako Parlamentuak eta bertan salatzen da "zenbait estatu-kidek aplikatzen duten urruntze politika, presoaren familiarentzat zigor gehigarria baita". Gaixo dauden presoen "osasun eskubidea hobeto babesteko" eta "arrazoi humanitarioagatik larri gaixo dauden presoen kondenak berrikusteko" eskatzen die txostenak estatu-kideei. Parlamentuak aldeko 474 botorekin onartu zuen idatzia. 109 kidek aurka bozkatu zuten, tartean Alderdi Popular, Ciudadanos eta UPyDko kideek. **2017-10-06**

FAUNA PUBLIKOA

“Hedabideak aparteko lana egiten ari dira”

Carmen Martínez Castro, Rajoyren prentsa-arduraduna, Kataluniako jarraipenaz (ElDiario.es)

Laugarren boterea (txiste bat)

Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria

Bi gauza gutxienez klaro daude politikari batek kazetariaren galderari erantzuten dionean irribarre eginez eta “asko eskertzen dizut hori galdetzea” esanez: 1) politikaria sentitzen dela hamakan etzanda purua erretzen bezain erlaxatuta eta beraz 2) kazetaria ez dela bere lana ondo egiten ari. Baina gutxienez posizioak argi daude eta galdera egiten duena mahaiaren alde batean dago, erantzun behar duena bestean. Beste gauza bat da Kataluniako independentzia prozesua, zeinean Espainiako hedabide askok erabaki duten dauden lekutik altxatzea, jartzea euren Gobernuko politikariaren atzean, eta gorbatadunei masajeak ematea enpeinu guztiarekin, egun gogor baten ondoren etxera iritsi daitezen zerbikaletako minik gabe –eta, batek daki, agian happy end bat disfrutatuta–.

Badu txungurra komentatzeak non entzun den Carmen Martínez Castroren adierazpen hau, alegia, FAPE kazetarien elkarteak La Caixarekin batera antolatutako jardunaldi batean. Gobernua, medioak eta banka. Polizia bat falta zen, horrekin poker, baina ez du posible izan, justu aste honetan plana egina zeukalako zure amona ostiatzera joateko.

Eta orain txiste bat kontatuko dugu, batere graziarik ez egiteko arriskua asumituz: Genovako mafiak txalotzen dituen komunikabide horiek dira, gaur goizean gosaltzen ari zaren bitartean, euskaldunen iturri nagusia zer pasatzen den jakiteko. Mmm, ez, definitiboki ez dauka graziarik: zeren agian ez gara pelikulaz ondoegi enteratzen ari, enteratzeko aukeratu ditugun mezulariak dabiltzalako, katxarroa sutu beharrean, gezurrak kontatzen eta erdi-egiak. Eskerrak hedabide batzuk kontsumitzeko ohitura tabakoa bezala dela. Nahi dugunean utzi dezakegu. ■

ANALISIA

Independentzia bultzatzea kapitala ahultzeko aukera

Lander Arbelaitz
@larbelaitz
ARGAZKIA: @JOSUKRISTO

Independentzia, helburu gisa baino, gizarte justuago bat lortzeko tresnatzat du askok Katalunian eta Euskal Herrian. Herritarren bizitzan oinarrizkoak diren eremuetan burujabetza planteamentuak bultzatzea da gakoa: ekonomia, elikadura, energia, telekomunikazioak, informazioa... Independentziaren aldeko borroka oinarri horietan eraikiz, politika neoliberalekin bazterrean geratzen ari den jendea independentismora erakartzen saiatu eta masa independentista pixkana ezkerrera eramatea izan daiteke jokaldia, konplexurik gabe azalduz posizio politikoak. Gauzak horrela, Kataluniako prozesua pedagogia egiteko aukerak ematen ari da, baliatu nahi dituenarentzat. Sabadell eta CaixaBank bankuen kasua da azkena.

Beren egoitza soziala Kataluniatik atera dutela iragarri dute, Kataluniako independentismoari presio politikoa egiteko asmoz. Kontuak zer diren, euskal herritarrokin harreman zuzena dute bi bankuok: Banco Sabadellek Banco Guipuzcoano jan bazuen, CaixaBankek irentsi zuen Nafarroako CAN. Espainiako batasunaren alde mugitu diren bi bankuotan, kataluniarren independentzia babesten duten zenbat milaka euskal herritarrek ote dauzkate aurrezkiak? Kataluniako udal eta herritar ugari bidea erakusten ari dira elkartasuna adierazi nahi dutenentzat: dirua atera, ahuldu egitura ekonomiko hauek. Nafarroan *#BagoazCaixaBank* kanpaina mugitzen hasi dira. "Gaur Kataluniaren aurka ari dira, bihar Nafarroaren aurka izan liteke", diote. Euskal Herriko zenbat udalek dituzte diruak bankuotan?

Eredu kapitalista gainditzen saiatzeko, egitura hauek ahultzea bezain garrantzitsua da bizitza erdigunean jartzen duten proiektuak indartzea, azken aldian eragile ugari nabarmentzen ari direnez. Fiare eta Koop57 eredu ditugu finantza esparruan, bi adibide aipatzearren. Bi ekintzak lotuz, aukera dago mahai gainean Kataluniarekiko elkartasuna adierazi, erakunde hauei presioa egin eta herrigintza ikuspegitik pausoak ematen jarraitzeko.

Eta bankuokin esandakoa energiaren alorrera, telekomunikazioen esparrura, elikaduraren edo hedabideen mundura eramanez gero? Etxean Iberdrola beharrean Goiener kontratatzea edo Kataluniako prozesuari buruz informatzeko Espainiako hedabideak utzi eta euskarazkoak hautatzea norberaren hautua da. Kataluniarrei lagundu eta aldi berean Euskal Herria behetik gora indartzen joateko, burujabetzaren aldeko lana egin daiteke esparru askotan.

EKONOMIAREN TALAIAN

Katalunian enpresa exodoa?

Juan Mari Arregi

Kataluniako prozesu soberanistak Espainiako Estatuko botere guztiak bat egitea ekarri du independentzia lortzea eragozteko. Erasoaldiak ez du aurrekaririk, eta euskaldunoi abisu moduan, Kataluniako herritarrak beldurtu eta itotzeko ari dira aurrera eramaten. Gobernua, monarkia, tribunalak, auzitegiak, poliziak... Denak bat, herri borondatea ezagutua eta onartua izan ez dadin.

Herri katalanaren eta bere gobernuaren irmotasunaren aurrean, sektore ekonomikoaren txanda da orain, bankuak buru dituztela; Moncloatik eta Zarzuelatik telegidaturiko erasoa da. Lau haizetara iragarri da Sabadell, Caixa Bank eta Gas Naturalek Katalunian duten egoitza soziala utziko dutela, eta beste enpresa batzuek ere gauza bera egin dezaketela, hala nola Codorniuk eta Freixenetek. Nazioarteko Diru Funtsa eta nazioarteko agentziak ildo beretik doaz. Testuinguru horretan, fronte mediatiko antikatalanak "izualdia" edo "enpresa exodoa" moduko hitzak erabili ditu eta Katalunian enplegua arriskuan dagoela nabarmendu. Beldurraren estrategiaren parte da, balizko independentzia aldarrikapen baten aurrean katalanak kikiltzeko.

Hala ere, independentzia aldarrikatzen bada, denbora labur bat igaro ondoren enpresa eta banku horiek itzuli egingo dira, etorkizuneko errepublika horretan negozioa dutelako, profesional oso onak daudelako, lan eskua ere bai, eta euren interes ekonomikoak hor daudelako. Orain beldurra sartu behar dute, botere politikotik hori eskatzen baitiete. Ekaitza pasata eta ikusten denean presio horrek ez duela ezertarako balioko, itzuliko dira euren kontuentzako emaitza onak lortzen dituzten tokira. Kapitalak ez du aberririk, horietako bakoitzetik elikatzen da. Denborarekin ikusiko duzue!

IÑIGO URIZ / ARGAZKI PRESS

Askapenak 30 urte

BERRIOZAR. Hiru hamarkada bete ditu Askapenak eta ospatzeko egun osoko jaia antolatu zuten urriaren 7an. 1987an sortu zen, internazionalismoaren aldeko borroka ardatz hartuta. Nikaraguako Sandinisten garaipena funtsezkotzat jotzen dute ekintzaileek taldearen sorreran; Euskal Herriko internazionalistak batzea eragin zuen. Ordutik, mundua asko aldatu den arren, helburuak berdina izaten jarraitzen du: herrien burujabetza.

Migratzaileen kanporatze azkarrak, legez kanpokoak

Andoni Mikelarena
@andonimik

Europako Giza Eskubideen Auzitegiak emandako epaia argia da: Espainiako Gobernuak Ceutan eta Melillan egiten dituen migrantzaileen kanporatze azkarrak legez kanpokoak dira.

Kasua

Maliko eta Boli Kostako bi herritarrek jarritako salaketari erantzunez heldu da erabakia. Marokotik Melilla hirira sartu nahian, orduak eman zituzten tarteko hesian igota. Guardia Zibilak, jaisten lagundu ostean, Marokoko poliziaren esku utzi zituen.

Epaia

Inongo neurri administratibo juridikori erantzun gabe egin zuten hori, epaiak dioenez. Biktimek 5.000na euroko kalte-ordaina jaso behar dute. Kaleratze azkarrek Europako Giza Eskubideen hitzarmena urratzen dutela esan du Estrasburgok.

Aspaldiko salaketa

Iheslarientzako Nazio Batuen Goi Mandatariak (UNHCR), Europako Batzordeak, gobernuz kanpoko erakunde ugarik... hainbatetan salatu arren, Espainiako Gobernuak entzungor egin eta kanporatze ilegalak egiten jarraitu du.

ARMAK

100

biztanleko, 88 suzko arma dituzte AEBetan, Nazio Batuen Erakundearen arabera. Munduan biztanleko arma gehien dituen estatua da.

59

hildako eta 500 zauritutik gora utzi zituen Las Vegas hirian joan den astean izandako tiroketak.

BASERRITARRAK KEXU

Sagardoaren Jatorri Izendapenak aukera itzelak ematen dituen arren, Euskal Sagardoa martxan jarri zenetik bildu den lehen uztan sagardotegiek sagarrarengatik ordaintzen duten prezioa "tamalgarria" dela eta ez dela duina kritikatu du Etxaldek eta "urteak eta urteak" daramatzatela horrela.

INDIGENAK

Brasilgo Gobernuak Amazonaseko hainbat lur multinazionalen esku utzi zuenetik, 118 indigena hil zituzten Brasilen 2016an. Egurra ustiatu nahi duten enpresen eraginez, mehatxupean bizi dira indigena komunitate asko.

NOBEL SARIA

Arma nuklearrak indargabetzeko ICAN kanpainak irabazi du 2017ko Bakearen Nobel Saria. Gobernuek arma nuklearren debekua adostea da elkartearen helburua, eta horretarako negoziatzen has daitezela eskatu du.

Parisera gaueko trenean joan nahi dut berriro, AHT okerrago datorkit

Pello Zubiria Kamino
@pellozubiria

Trenbide sarearen heriotza programatuari aurre egiten saiatzen diren taldeen artean, badira bidaiatzeko sistema ustez zaharkituaren biziberritzea aldarrikatzen dutenak. Gaueko trenak etorkizuna duela uste dute erabiltzaile, sindikalista eta ekologistaz osatutako taldeok. Frantzian bezala Espainian AHT, autobus eta hegazkinen ohoretan hiltzera kondenatu dituzten gaueko trenak, Finlandia, Suedia edo Austrian babestu egiten dituzte, azpiegitura eta zerbitzu berriz hornituz.

"Hendaia ta Donibane / Baiona, Austerlitz..." entzuten zaio oraindik *Eltzegor* taldeari *Herrialde Berdean* diskoan: kantariak gauean Hendaiako geltokian trena harturik, goizean goiz Paris-Austerlitzekora helduta hiri handian preso daukan laguna bisitatu ahal izango du, iluntzean alderantzizko bidaia egiteko. Bi gau trenean lo, egun bakarra aski izan du Parisko enkargua betetzeko. Ondoko ohatze eta konpartimentuetan doazen herritarrei ere –saltzaile, turista edo edozein klasetako langile– ondo datorkie erraz, eroso eta merkea.

2017ko uztailetik, ordea, gutxienez hoteleko gau pagatu eta lan egun oso galdu behar dituzte, SNCFk konpainia publikoaren *Palombe Bleue* [Uso Urdina] Hendaia eta Paris, Paue eta Tarbesetik barrena lotzen zituen gaueko trena eten baitu. Oraingoz behin betiko.

Frantziak zeuzkan zortzitik sei kendu dituen moduan, beste leku askotan ere desagertu dira gaueko trenak. Gurean, hamar urte dira RENFEk Donostia eta Bilbo Bartzelona eta beste hiriburuekin lotzen zituztenak ezabatu zituela. Baina Hegoaldean kexu handirik entzun ez den bezala, erabiltzaileen protestak ikusi dira Baiona, Paue, Tarbe, Perpinya eta abarretan, eta Europako leku askotan mugimendu txikiak sortu ere bai itxitako gaueko trenak defenditzeko berriro abian jar ditzaten eskatzeko.

OTN Oui au Train de Nuit (Gaueko Trena Bai) kolektiboak berrikitan dossier aberatsa aurkeztu du gaiaz, *Gaueko trenak berriro abiarazi*, energia eta klimaren krisien erdian zehazki 750 kilometro baino luzeagoko ibilbideetan tren klase honek gainerako garraiobideen tartean etorkizunean jokatu behar duen papera aztertuz.

Hegazkinak eta kotxeak direnez oraindik ere nagusi 750 km-tik goragoko bidaietan nagusi, agintariek trenean inbertitzea erabaki zuten azken hamarkadotan, baina inbertsio osoa –kopuru izugarrietan gainera– Abiadura Handiko Trenbide berrietara eramanez. Kontua da dirutza handiok xahutu dituen Frantziak... ez duela lortu garraiobideen gas isuriak murrizterik.

Bitarte horretan, hiri arteko *Intercity* motako trenen azpiegiturak hondatzen utzi dira, zer esanik ez gaueko trenak, ez inbertsio, ez estrategia komertzial, ez lotarako bagoi berririk. Zerbitzua usteltzeraino: 2017. urtean Hendaia-Paris lineako gaueko trenen %43 edo bertan behera geratu ziren edo oso berandu iritsi. Dena antolatu da inbertsioak eta bezeroak tren klasikoetatik AHT berrietara eramateko, ez denean autobusetara edo hegazkinetara.

AHT berriek, gainera, laster erakutsi dute ez bakarrik tarteko herriak baina baita erdi mailako hiri asko ere gero eta bakartuago geratzen ari direla; orduan egin dute lekuko agintariek presio distantzia ertaineko trenak mantentzeko. Baina ez dute aski lan egin gauekoak bizirik atxikitzeko, ziurrenik beren buruetan ere iltzatuta daukatela gaueko trena antigoaleko gauzatzat, erromantikoa agian bai, baina funtsean zaharkitua, iraungia. Aldiz, OTN eta beste zenbait elkarte ziur daude gaueko trenei gertatuko zaiela tranbiei gertatua, 1960. hamarkadan hirietatik kasik erabat suntsitu ostean berriro modan jarri direla. Horregatik, diote, hobe daudenak ez alferrik galtzea, hobe Austria, Finlandia eta beste zenbait lekutan bezala gaueko trenak modernizatzeari ekitea.

Ordubetean 1.000 kilometro

Horretan ari dira Austrian. Gaia aztertu ondoren OBB ferrokarril konpainiaren buruak azaldu zuen gaueko trenen erabiltzaileak hor daudela, ez dela nostalgia kontua, ikuspegi komertzialetik eskari bat bazegoela konpainiek asebetetzen ez zutena; 2018tik tren eta eskaintza berriekin osatuko dute han zerbitzua.

Urteotan gertatu da trenbideetarako diru publiko guztiak AHTn xahutzen aritu ostean herrialde batzuetan –ez eskatu horrelakorik Espainian– kontabilitateak egin dituztela. Hala, ikusi dute garraiobide eraginkorrenetakoak gaueko trenak direla. Koste ezkutuetan datza gakoa. Ordainsaririk gabeko errepideak merkeak dira aginte publikoek finantzatzen dituztelako inbertsioak. Hegazkinen ustezko errentagarritasunaren oinarrian daude erregaien zergetan barkatzen zaizkien milioiak eta lekuko agintarien laguntzak.

Abiadura Handiko Trenari dagokionez, SNCFk aitortua du Frantziako 180

Bidaiarien protesta Okzitaniako Tarben joan den uztailean, SNCFk Hendaia-Paris gaueko trena desagerrarazi zuenean. Afixa batean diote "Hartu astia lasai joateko, Paris ordubetera dago: ordu erdi lokartzeko eta ordu erdi esnatzeko", bestean "Gaueko trena, hegazkina baino ekologikoago, AHT baino merkeago, autobusa baino erosoagoa". Lehen Parisen egun bakarrean –lotan eginik joan-jinak– egin zezaketen edozein enkargutarako orain beste egun bat edo bi gehiago galdu behar dituzte, gutxienez gau bateko hotela ordaintzeaz gain.

lineetatik 80 eta 100 artean defizitarioak direla. Hori konpainiak dioena, zeren eta OTNkoen kalkuluetan Paris-Lyon da dirurik galtzen ez duen bakarra. Berrikitan zalaparta handiz estreinatu duten Tours-Bordele lineak, ia 9.000 milioi euroko inbertsioa eta gero, aipatzen hasia dira urtean 150-200 milioi gehiago gal ditzakeela. Perpinyà-Figueres AHTren kiebra ogasun publikoari kosta zaio 450 milioi euro.

Kopuru txundigarri horien aldean, Frantziako gaueko tren guztien artean 2015ean 75 milioi galdu zuten. Baina bazituen lineak beren buruak pagatzen zituztenak, kendu berri duten Paris-Hendaia esaterako 2011 arte.

Gaueko trenak etorkizun oparoa dauka eta gaur ez bada bihar heldu beharko zaio berriro, energiaren garestitzeak eta klimaren zoratzearen kontrako politikek hala eskatuko dutelako, baina baita ere 600 kilometro baino luzeagoko ibilbideetan bidaiariei eskaintzen dielako aukerarik merke eta erosoena. Ez hegazkina, ez autobusa eta ez AHTk konkurritu dezakete bere kontra, kontabilitateak txukun eginez gero.

Gaua lotan emateko aukerarekin, abiadura motelagoan zirkulatuz bezeroari baimentzen dio diruaz gain denbora irabaztea. OTNkoek dioten moduan, "ordu bete behar duzu 1.000 km egiteko, ordu erdi lokartzeko, beste ordu erdi iratzartzeko". Herrialde eta eskualdeetan komunikazioak hobeto antolatzen laguntzen du. Europa mailako mugikortasuna errazten. Garraiobiderik ekologikoena da. Patxadakoena. Lanpostuak ugaritzen ditu, bidaiariei zerbitzu anitzagoa eskaintzen dielako. Eta merkea da: herritarrek gero eta gehiago begiratzean diote garraioaren prezioari, bidaiaren iraupenari baino.

Gaueko trenaren aldeko elkarteak, oso minoritario izanagatik, lan handia ari dira egiten zerbitzuaren aurrera begirako hobekuntzak proposatzen ere. Tiketak erreserbatzeko sistema hobeak. Trenen edukiera handitzea. Linea berriak sortzea Europa osoa zeharkatzeko. Tarteko geldialdiak ugaritzea. Auto elektrikoa indarrean datorrenez, bidaiariez gain kotxeak eramateko zerbitzuak osatzea. Dutxa eta bestelako zerbitzuak hobetzea. Uharteetarako ferryetan bezala bidaiatzeko aukera ezberdinak eskaintzea, batetik etzanda joateko logelak eta bestetik ibilbidea eserita merkeago egitea.

Beste gauza askotan bezala, trenetan ere iraganean egon daiteke etorkizuna. AHT askoren porrotak lagunduko dio. ■

Safia Nafa Aali, Mendebaldeko Saharan jaioa

«Kultur balioak babestu behar ditugu iritzi politikoen gainetik»

Sahararra da, Mendebaldeko Saharan sortua, egiazko Saharan, exodoa bizi izandakoa. Sahararra da gaur egun Gasteizen, ikastolako ama, euskaldunetara guztiz irekia, izatea bera ere partez herri honetara jarria, bere baitan harrera beroa egina euskarari eta euskaldunari.

Miel A. Elustondo
ARGAZKIAK: ZALDI ERO

Oraintxe, telefonoz ari zinen kanpamenduetara.
Bai. Whatsapp-a baino ederragorik ez dago. Zoragarria. Nomada gara, eta uste dut telefono mugikorra dela gure izateari hobekien egokitu zaion asmakaria. Ikasle nintzen garaian, Bilbon, zaila zen Saharako familiarekin komunikatzea, odisea hutsa. Eskutitzez behar zenuen, edo Aljeriako halako toki jakin batera, telefono finko batera hots egiteko hitzordua egin... Zoramena zen. Orain aberatsak gara. Kar, kar...

Ez zarete aberatsak, baina sakelakoak dituzue, eta sakelakoak dituzte kanpamenduetan.
Geuk bidaltzen dizkiegu sakelakoak. Antenak, berriz, aljeriarrek ipini zituzten. Horri esker komunikatzen ahal gara. Dena dela, estaldura gorabeherak izaten ditugu kanpamenduetan bertan ere. Toki batzuetan besteetan baino hobea da. Deiak ete-tea ere ez da gauza arrotza, alegia.

Urteak daramatzazu Euskal Herrian.
1990ean etorri nintzen, azaroan. Ikasle nintzen Aljerian, batxilergoa egin nuen eta zenbait ikasle hautatu zituzten beren txosten akademikoen arabera. Aldi berean, nonbait, Gasteizko Udalak hiru beka eman zituen, eta honaxe bidali ninduten ni, beste bi ikaslerekin batera. Etorri ginenean ez genekien hitzik gaztelaniaz. Frantzisko Vitoria Institutuan hasi ginen, Helduen Heziketa Iraunkorrean, eskola partikularretan ere bai... Ekaina heldu zen, selektibitate proba egin genuen, baina ez genuen gainditu. Alegia, zientzia ikasgaiak bai, gainditu genituen; letrak, aldiz, ez. Irailean azterketa berriz egin eta gainditu genuen.

Unibertsitatera sartzeko hautaproba gainditurik, zer?
Enpresa ikasketak egiten hasi nintzen. Diplomatura. Hiru urte dira, baina lau behar izan nituen nik. Ez nengoen ohitua unibertsitateko gela batera sartu eta etengabe oharrak hartzen. Oso gogorra egin zitzaidan lehen urte hura. Ohitu nintzenean besterik izan zen. Ikasgaiak aise gainditu nituen azken bi urteetan.

Hemen zara harrezkero.
Ez, ez, hori baino korapilo handiagoa da. 1992an Saharari buruzko erreferenduma egingo zela agindu zuten, eta atzerrian ginen saharar ikasle denak itzuli ginen etxera. Botoa eman beharra zen.

Ez zen erreferenduma egin, ordea.
Ez, bada! Baina hura ilusioa! Sekulako

Safia Nafa Aali

Mijek, Sahara, 1971

Saharatik ihesi joan zen familia Safiak 6 urte zituenean. Libian egin zituen Lehen Hezkuntza ikasketak, eta Aljerian Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa. Unibertsitate ikasketak, azkenik, Euskal Herrian. Artean (Bizkaia) bizi izan zen lehenik eta Gasteizen da duela hamar urte baino gehiago. Euskaldunak seme-alabak, bere burua euskalduntzen Safia eta senarra, beren jaioterriko Sahara libre amets.

RALI

poza genuen, erreferenduma egingo zela esan ziguten... eta poza hainbestekoa izan zen etsipena erreferenduma ez zela egingo jakin genuenean. Prest zegoen dena eta bat-batean, ezetz, ez zela erreferendumik. Hasteko, 1975ean Saharan zirenek zuten bozka emateko eskubidea. Marokok, berriz, harrezkero Saharan ziren marokoarrek ere botoa ematea nahi zuen. Bertako saharartak baino askoz gehiago dira ordudanik gure lurretan diren marokoarrak. Ezinezkoa zen era horretako erreferenduma egitea. Horrez gain, seguru nago interes ezkutuak ere izan zirela erreferenduma egin ez zedin, eta egin ez dadin.

Sahara lur aberatsa dela irakurria dut.

Fosfatoa du, eta munduan diren arrantza-bankurik handienetakoak ditu. Hala zen, behintzat, garai batean. Orain, batzuek eta besteek erabiltzen dituzten arrantza-teknika agresibo horien ondorioz, ez dakit zer izango den. Petrolio zundaketak ere egin omen dituzte. Interes ekonomikoak hor dira, dudarik gabe. Hala ere, Sahara ez askatzeko lehen arrazoia inperioa hedatzeko monarkiek ohi duten irrits gaizto hori da. Sahara, beste gabe, lur agorra balitz, Marokok ez zukeen interesik hura bereganatzeko.

Erreferendumik ez, atzera Euskal Herrira etorri zinen.

Itzuli eta unibertsitatean ikasten hasi nintzen. 1998an diplomatu nintzen Enpresa zientzietan, eta kanpamenduetara itzuli nintzen. Han lan egitea izan nuen beti amets, nahiz eta hemengoak bezalako azpiegiturarik ez logistikarik ez izan han. Joan eta bertan egon nintzen, neure familiarekin bizi nintzela eta Saharako Gazteriarekin lanean, bateko eta besteko proiektuak asmatzen Espainiako Gazteria Sozialistarekin, tarteka Madrilera joanez. Hala ere, 2000. urtean Euskal Herrira etorri nintzen berriz.

Zertan zen kanpamenduetako bizitza?

Errutina hutsa da kanpamenduetako bizimodua, eta are eta errutina handiagokoa emakumearentzat. Nik, esaterako, bulego batzuetan egiten nuen lan. Horrez gain, familia zaindu beharra nuen, ganadua gobernatu, jatorduak egin... Lanean, goizetik arrats. Horretan nintzela, neure buruari galdetzen nion: "Horrela biziko ote naiz beti? Hau ote da neure buruari opa diodan bizimodua?".

Bai, neure herriaren aldeko lanean nintzen, baina hemengo bizimodua ere ezagutua nuen ordurako, eta hango errutina zeharo gogorra egin zitzaidan.

Gaur egun ere horrela da hango bizimodua?

Han ez dago ezer. Lehen horrela zen, eta orain ere, nahiko lan. Ez dago egitekorik. Zenbait gazte GKE-ren batekin ariko dira lanean, besteren batzuk erizain ariko dira... Baina ez dago etorkizunik. Ikasketak eginagatik ere, ezer ez. Emakumeari dagokionez, askoz ere markatuago dauka bidea, gizarteak irensten baitu: ezkondu eta umeak egin, ez du besterik. Gizonezkoak negozioa ireki ahalko du, dendatxoren bat... Baina ez dago Estatu egiturarik.

Kanpamenduetako errutinan sortu zinen zu.

Ez ezazu uste. Ni ez naiz luzaro bizi izan kanpamenduetan. Hasteko, egiazko Saharan jaio nintzen, eta sei urte nituela, 1977an alde egin zuen handik familiak. Desertura iritsi ginen, eta han ezer ez. Zenbait herrialdek laguntza eskaini zuten; besteak beste, Libia, Kuba eta Aljeriak, eta haraxe hainbat ume. Ni, esaterako, Libian nintzen 6 urterekin, ikasten. Ikasleok bi urterik behin etortzen ginen etxera, udako. Horrela ibili ginen 1984 arte. Urte horretan, Gadafik akordioren bat egin zuen Marokorekin –horrelakoxea baitzen Gadafi, noiz alde batera, noiz bestera–, eta gu Saharako ikasleok Libiatik atera eta Aljeriara eraman gintuzten.

Barnetegian zineten ikasle.

Bai. Libiako barnetegian 85 saharar ginen ikasle. Aljerian, 50. Ez dut Libiako oroitzapen askorik, baina bai Aljeriakoak. Oso ondo moldatu ginen. Libian, txiki joan ginenez, airean ikasi genuen libieraz. Are gehiago, bi urte han eta kanpamendura itzuli ginenean, gurekin batera joandako zenbait ez ziren ha-

sanieraz mintzatzeko gai, ahaztua zuten. Libieraz ikasi genuen, libiera itxia, zarratua. Kar, kar... Aljerian, bestalde, bertako dialektora egokitu genuen gure arabiera, eta eragozpenik gabe jarduten genuen eskolan nahiz lagunekin.

Ez duzu Libiako oroitzapen askorik, baina bai Saharatik kanpamenduetara egindako bideaz.

Zer edo zer. Une jakin batean, helduak zalantzan ikusi nituen, erabaki ezinik. Gure aitona eta osaba alde batetik, amona bestetik... "Datilak zuk, nik... Gu oinez, zuek...", deigarri egin zitzaidan pertsona larriek hainbeste zalantza ibiltzea. Aaiunen bizi ginen gu eta hantxe geratu zitzaizkigun aitaita-amamak, kanpamenduetara gabe. Abiatzera gindoazela, gure neba txikiak utzi egin gintuen, aitaita-amamen etxera joan zen ihesi. Gure amak gorriak ikusi zituen, marokoarrak ere bertan ziren kasik... eta, azkenean, aitaita-amamenean geratu zen neba. Neba zaharrena eta txikia, hantxe geratu ziren biak. Orain esaten diet: "Neuk izan nuen zoririk handiena!". Kar, kar...

Aaiunen zineten, beraz.

Bai, nahiz eta Mijek-en sortu nintzen, Mauritania aldeko mugan, baina nomada ginen, eta batetik bestera genbiltzan. Gure gurasoak 60ko hamarkadaren bukaeran joan ziren Mijek-era. Aurretik, nomada hutsak ziren. Etxea Aaiunen izanagatik ere, non edo non euria egin zuela, haraxe joaten ziren, ganaduarentzako bazka bila, ur putzuetara... Bizimodu latza. Gure aita nomada izan da, baina ez dio inori opa.

Ez nomada, ez kanpamendu.

Egoera aldatu beharra dago, politika bera, noiz edo noiz lehertu egin beharko du honek. Globalizazioa ere gure kontra dago. Gazteek besterik merezi dute, zer edo zer egin beharra du Fronteak [Polisarioa] edo baten batek, edo guk denok.

Katalunian bezala beharbada.

"Katalunian bezala" diozu? Kataluniako erreferendumaren bezperan, greba deia egin zuten Gasteizen, Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan. Gure semeari grebarik ez egiteko agindu nion, lehengo batean Puigdemontek esandakoarekin haserre. Telebistan elkarrizketatu zuten, eta galdetu ziotelarik: "Herrien autodeterminazioaren alde zaude?", berak baietz. "2014an Kurdistanen independentziaren kontra eman zenuen bozka". "Ez naiz oroitzen", Puigdemonten erantzuna. "Eta Saharako independentziari?", "Ezezko botoa eman nion". Puigdemontek! Ez zen Kurdistanekoaz oroitzen, baina bai Saharakoari ezetz esan ziola. Semeari esan nion: "Gaur, grebarik ez!". Herri guztien autodeterminazioaren alde nago, baina "zuk bai eta nik ez", ez!

Sahararra, Libian, Aljerian eta Euskal Herrian ikasia zaitugu, aski nomada.

Kar, kar... Hemen egin nituen lagunengatik nago ni hemen. 25 urte ere badira, eta lagun ditut oraindik. Enpresa eskolarik ez zegoen garai hartan Gasteizen, eta nahiz eta beka hemengo udalak eman zigun, Bilbon egin nituen ikasketak, hantxe bizi nintzen. Senarra nuen ordurako, sahararra, eta Bilboko lagun batek etxea inguratu zigun Artean, Arratian. Eta hantxe bizi izan ginen bost urte.

Hainbestean ikasi zenuen euskaraz.

Ez dakit ikasi nuen ala ez, baina belarria, behintzat, ondo zaildua dut. Ulertu,

Betiko

"Lehen umea izan baino lehen, hemen bizi nintzelarik ere, hilabeteak ematen nituen kanpamenduetan. Ez bat eta ez bi, hiru eta lau ere bai. Ezagutzen dut hango bizimodua, ikusi ditut berrikitan egin dituzten errepideak, jarria dutela elektrizitatea... Ongi da horiek egitea, baina horrek, bestalde, betikotu egiten du egoera".

Esperantza

"Ez dakit zein den kanpamenduetako etorkizuna, ez dut esperantza handirik, ikusiak ikusirik. Ez dakit inoiz Aljeriako parte egingo duten inguru hura edo zer egingo duten, baina independentzia... Gainera, kanpamenduak ez dira gure lurra, betiko Sahara, Mendebaldeko Sahara baizik. Kanpamenduak ez dira sahararron etxea".

Arrotz herrian

"Sahara da gure lurra, baina hara joan eta, orain, marokoarrez inguratuta, ez gara etxean sentitzen. Arrotz gara gure herrian".

dena! Gasteizera etorri ginelarik 4 urte zituen gure seme zaharrenak: ez zekien bizkaieraz eta hasanieraz besterik. Gaztelaniaz ez zekien. Baina, jakina, nahikoa izan zuen hilabete eta erdi Gasteizen, gaztelaniaz ere hitz egiten hasteko.

Hemen egindako lagunengatik zaitugu Gasteizen, ikastolan seme-alabak, abertzale giroa bizi duzu, baita espainol giroa ere.

Iritzi guztiak errespetatzearen aldekoa naiz, hori hasteko. Baina globalizazioaren aurrean, kultur balioak babestu behar ditugu, kultura, iritzi politikoen gainetik. Nork bere hizkuntza, nork bere identitatea defenditu beharra dago. Badut lagun bat euskararen kontra mintzatu izan zaidana. Nik kontra egin diot, esanez hizkuntzek aberastu egiten gaituztela, euskara aberasgarri dugula, kultur balioak aberasgarri zaizkigula, ideia politikoak zeinahi ditugula ere. Gurean, bai euskara bai gaztelania ikasteko giroan hazi ditugu seme-alabak, baina hasanieraz. Kultur balioak babestu behar ditugu denok, nahiz eta nork bere administrazio politikoa izan gustuko. Orain esateko moduan naiz.

Zer esan nahi duzu? Lehen ez?

Etorri ginenean ez nuela oraingo ikuspegirik. Nik ere ikasi egin dut. Elkarbizitza delikatua da hemen. Hasieran, etorri eta, lagunekin: "Espainiara etorri nintzenean…", eta beraiek: "Euskadira etorri zinenean?". Hurrena, besteren batekin: "Euskadira etorri nintzenean…", eta berak: "Tira, Espainiara etorri zinenean…". Azkenean, "Hona etorri nintzenean!", ez Espainiara, ez Euskal Herrira, "Hona!" eta kito.

Hainbeste urte herrialdetik kanpora, nongoa zara?

Euskal-sahararra naizela esaten diet lagunei. Urte asko daramatzat hemen, bertakotu ere egin naiz, Saharan errebindikatuko ez nituzkeenak errebindikatzen ditut hemen. Bi kulturetakoa naiz, hangoa eta hemengoa, ikaragarri gustatzen zait lagunekin irtetea, hitz egitea, barre egitea… Bestalde, badira zenbait ohitura, nire kulturakoak, gaur gero ulertzen ez ditudanak. Errespetatu bai, ulertu ez. Zorionekoa naiz bi kulturak ditudalako, hemengoa eta Saharakoa, eta nire seme-alabek ere bi kultura hauek ematen duten ikuspegiaren jabe izan daitezen nahiko nuke. ■

Alemania ere

Mikel Zurbano
EHU-KO IRAKASLEA

Eredugarria omen den herrialdean eskuin muturra Bundestagen sartu da dagoeneko. Hauteskunde osteko analisi ia gehienetan Berlingo Gobernuak atzerritarrekiko izan duen politikan ipini dute arreta alderdi xenofoboaren gorakada azaltzeko. Begirada bakarreko analisia, inondik ere. Garrantzi handiko gaia izan arren, asilo politika ez baita boz erradikalaren igoera azaltzeko faktore bakarra izan. Alemania arrakastatsuan errealitate sozioekonomikoaren narriadura begi-bistakoa da.

Ezin da ukatu enplegua sortzeko bertan dagoen dinamismoa apartekoa dela, eta oro har, azkenaldian batez besteko soldaten igoera eman dela. Europako herrialde nagusiak ondo jakin du azken hamarkada eta erdian euro-guneak sortutako hobariei probetxua ateratzen. Esaterako, langabezia-tasa beheratzea lortu du 2007ko %8,5etik 2016ko %4,4raino, krisi beteko garaian alegia.

Hala ere, datu makroekonomiko positibo horiek ez dute azkenaldiko lan eta gizarte egoeraren higadura balaztatu. Alemania ere kohesio sozialaren gainbeheraren eta desberdintasun gorakorren herrialdea da, Angela Merkelen Gobernuaren doikuntza neurriak eta politika zorrotzak hauspotuta. Bertako desberdintasun indartsuen erakusle, Alemaniako Gini indizea –koefizientea– Europar Batasuneko garaienen artean kokatzen da. Are gehiago, gizartearen errenta dibergentzia gora doa. Krisiak errenta eta aberastasunaren kontzentrazioa indartu du. Gizarteko %10ak aberastasun guztiaren %65 zuen 2016 urtean, *Credit Suiss*-eko datuen arabera. Beste muturrean, herritarren %15a (12 milioi pertsona baino gehiago) pobreziaren atariaren azpian bizi zen 2015 urtean. Milioidunen herrialdean milioika pobre daude, horixe paradoxa!

Bestalde, lan merkatuaren azterketak ere ez du egoera hoberik erakusten.

Alemania ere kohesio sozialaren gainbeheraren eta desberdintasun gorakorren herrialdea da, Angela Merkelen Gobernuaren doikuntza neurriak eta politika zorrotzak hauspotuta. Bertako desberdintasun indartsuen erakusle, Alemaniako Gini indizea –koefizientea– Europar Batasuneko garaienen artean kokatzen da

Enpleguaren sorrera bizkorra izan da azkenaldian, baina enplegu berri ugariren kalitatea oso ahula da. Aldi baterako edo denbora partzialeko eta soldata oso apaleko *minijob* gisa ezagunak diren enpleguak oso bizkor hedatu dira. Iaz 11 milioi langile ziren lan kategoria honetan zihardutenak, enplegu guztiaren %26,7 alegia. Eta 2.000 milioi pertsonatik gora lan bat baino gehiago egin beharrean daude, denbora partzialeko prekarietateak eta soldata apalek horretara behartuta.

Errealitate gordin horren argazkia eta analisia egin du Oliver Nachtwey alemanak *Jaitsieraren gizartea* goiburua duen bere azken liburuan. Egile honen tesiaren arabera 1970eko hamarkadatik igogailu sozialak kontrako norabidea hartu du mendebaldeko herrialdeetan, baita bere herrialdean ere, non prekarietatea eta gizartearen polarizazioa eguneroko ogia diren. Eta hala ere, oraindik ere, gizarte alemaniarrak bere burua igoeraren gizartetzat du. Baina Atzeraldi Handiarekin hazkunde osteko kapitalismoan gaude eta integrazio sozialerako baliabideak eta borondatea ahitzen ari dira.

Nachtweyk azpimarratzen du eraberritutako modernizazioa egon dela baina atzerakoia izan dela. Izan ere, askatasun soziala eta araugabetze ekonomikoa elkarrekin ematen dira: berdintasunaren aldeko urratsak eman diren arren, arlo ekonomikoan atzerako pausoak nagusitu dira. Esaterako, emakumeek lan merkatuan presentzia handiagoa dute baina prekarietate gehiago nozitzen dute. Alemanian ere, kapitalismoaren eta demokraziaren arteko eta askatasunaren eta berdintasunaren arteko tentsioa gora doa gatazka era berriak eraginda. Horregatik, jaitsieraren gizartean alienazio politikoak apatia eta xenofobia dakartza, baina baita herritarren protesta era berriak ere. ■

Doluak

Ukazioa, amorrua, negoziazioa, depresioa eta onarpena. Adituek diote doluak bost fase dituela, eta ez beti hurrenez hurren. Hauxe duzu marko teorikoa: "Ez zara zu, zure marko teorikoa da". Bere horretan oso logikoa. Zure apunteetan prozesu eskematiko eta txukuna. Eta, hori jakin arte, zu –dolua zure baitatik pasatu bitartean eta zu bere baitatik–, parranda amaiezinetan murgildu zara, insomnioa sumatu duzu eta udazkeneko lehenengo suteetan erre duzu zure bizitza. Eta bizitzak, zenbait momentutan, paperezko itsasontzi baten antza hartu du. Jateko gogorik eza, ohetik ezin altxatua, lekuetara bakarrik joateko beldurra eta lotsa. Bila ibili zara, galduta, bizitzari leiho bat ireki nahian eta nagi, aldi berean.

Gertutik ezagutzen zaituztenak inguruan dituzu, baina urrun sentitzen dituzu, nahiz eta bi punturen arteko distantzia beti berbera izan. Laguntza eskatu aurretik lotsa eta beldurra; ihes egingo zenuke. Nora? Burumakur zabiltza; haserre emakume indartsu eta burujabe izateko, orain, oraindik, indarrik ez duzulako aurkitu. "Badakizu denbora kontua dela", baina minaren orainak ez du ez iraganik ez etorkizunik. Azalean eta

Haizea Nuñez
KOSMONAUTA FEMINISTA
@haizea_nunez

Gertutik ezagutzen zaituztenak inguruan dituzu, baina urrun sentitzen dituzu, nahiz eta bi puntuen arteko distantzia beti berbera izan. Laguntza eskatu aurretik lotsa eta beldurra; ihes egingo zenuke. Nora?

biografian daramatzazun orbainei heldu nahi diezu, haien memoriari eutsi eta konfiantza eduki. Zure marko teoriko berriaren parte da "gorpuztu" kontzeptua, eta oso apopilo abila zara zu kontzeptuak diskurtsoan barneratzen.

Kandelak pizten hasia zara. Etxeko sarreran aldare pagano eta heterodoxoa jarri duzu. Bi egunean behin, *Palo santo* errea eskuan duzula, etxeko geletan barrena borobilak marrazten dituzu airean. Badira errutinak planeatu eta erdizka betetzeko gai zaren egunak. Terapiara ere joaten zara, gau batez ero moduan hilerrira joan zinenetik zure burua galtzearen beldur baitzara. "Negar egin behar baldin baduzu, egin negar eta etzan lurrean, beherago ez zara eroriko. Lagunei zurekin lo egitera etortzeko eskatzen diezu eta ez naiz berriro hemendik pasako" errepikatzen diozu zure buruari, eta aurrean duzun lagun pazientziadun horri. Erabat gogaiturik kontzertu batera animatzen zara. Kanta batek itsasoaren botere sendagarria aipatzen dizu. Horretan sinetsi nahi duzu, jada, jainkoak, familiak eta estatuak sinesgarritasun guztia galdu dutelako. Pedalei eragiten diezu itsasorantz, errukirik gabeko euri-jasa botatzen duen bitartean. Sinetsi? Bai. Errealitate gordina jasanezina bihurtzen zaizunerako, erritoak. Bai baitakizu berriro dolutik pasako zarela eta hura zugandik. ■

IRAILA / URRIA 2017
ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK
PAISAIA BIZIA, paisaien eraikuntza.
Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kiroletako Departamentua
ORAIN KULTURA

AIA, ALKIZA, ANDOAIN, ANOETA, ARRASATE, ASTIGARRAGA, ATAUN, BEASAIN, BERGARA, DONOSTIA, EIBAR, ELGOIBAR, ERRENTERIA, ESKORIATZA, EZKIO, HERNANI, HONDARRIBIA, IDIAZABAL, IRUN, LEGAZPI, LEINTZ-GATZAGA, MUTILOA, MUTRIKU, OIARTZUN, OÑATI, ORDIZIA, ORMAIZTEGI, PASAIA, SEGURA, SORALUZE, TOLOSA, URNIETA, URRETXU, USURBIL, ZARAUTZ, ZERAIN, ZESTOA, ZUMAIA, ZUMARRAGA.

http://bit.ly/2kj5JUU
www.gipuzkoakultura.eus

Enpleguaren hamarkada galdua

Endika Alabort Amundarain
EKONOMIALARIA
@autogestioa

Barne Produktu Gordina (BPG) ez da erreminta ona herrialdearen aberastasuna neurtzeko. Hala ere, ekonomistek magnitude hau erabili ohi dugu, lanabes moduan. Estatistikak eta tasak aipatzerako orduan, hainbeste zenbaki artean irakurle arrunta erraz galtzen da. Aitortzen dut: niri askotan ere gertatu izan zait. Hurrengo lerroetan datuak ulergarri egiten saiatuko naiz.

2007 eta 2017 urteen artean, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan, zazpi urtez jarraian aberastasuna galdu zen, azken bi urteetan aurreko maila berreskuratuz: 2015eko BPG 2008ko kopuruetara heldu zen. BPGren ikuspuntutik, badirudi krisia "gainditu" dela. Gakotxoen artean aipatzen dut, batez ere aurreko maila berreskuratzeak esan nahi duelako hazkunde aukera handia galdu dela bidean.

Enpleguaren aldetik, berreskurapen hori ez da oraindik eman. Analisi honetarako hiru elementu erabiliko ditut: jardunaldi mota, eta sektore pribatuko eta publikoko langile kopuruen eboluzioa. Argi utzi nahi dut, orokorrean, kontratu mugagabe baten enplegu kalitatea behin-behineko kontratu batena baino handiagoa dela; baita lan jardunaldi oso batena ere, zatikako baten aurrean.

Jardunaldi osoan lan egiten duen enplegatu kopurua, 2007 urteko kopuruarekin alderatuz, 134.000 pertsona gutxiago dira (126.000 gizon eta 8.000 emakume). Zatikako lan jardunaldian, aldiz, 20.000 langile gehiago daude (16.400 gizon eta 4.300 emakume). Hau da, azken hamar urte hauetan, jardunaldi osoko enplegu ugari suntsitu dira. Zatikako lan jardunaldiak, aldiz, ez dira gai izan enplegu kopuru hau ordezteko.

Sektore pribatuan, enplegatutako pertsona kopurua krisiaren hasieratik murriztu da, 60.000 pertsonetan zehazki (62.000 gizon gutxiago lanean, baina 2.000 emakume gehiago). Kontratu mugagabeen aldetik aztertuz, 2010etik hona 41.000 langile gutxiago daude; behin-behinekoak, aldiz, 2012-2013tik gaur arte handituz joan dira urtez urte.

Sektore publikoan, aldiz, bi epe bereiz ditzakegu. Lehenengoan, 2007-2012 urteen artekoa, mugagabeko enpleguaren sorrera eman zen, behin-behinekotasuna murriztuz. Baina hurrengoan, austeritate neurriak aplikatu ostean, 7.900 enplegu mugagabe suntsitu ziren, epe berean sortutako behin-behineko enplegua 5.500ekoa izanik, murritzagoa.

Laburbilduz, nahiz eta aberastasun sorreraren aldetik krisi aurreko maila berreskuratu dugun, enplegu aldetik Nafarroan eta EAEn jardunaldi osoko 134.225 enplegu gutxiago daude eta 20.650 gehiago zatikako lan jardunaldian. Jasandako soldaten murrizketak gehituz, testuinguru ilun baten aurrean gaude. Horregatik 2007-2017 epealdia, hamarkada galdua izendatu beharko dugu. ■

Venezia sindromea eta disoziazio-ihesa

Miren Artetxe
BERTSOLARIA
@mirenartetx

Turismoa, kontzeptu gisa, ez dago modan. Aski ezagunak dira, dagoeneko, *turismo masiboaren* aurkako argumentuak. Ikasi dugu, ikusi dugulako, *hiperturistifikazioak* gure auzoetako alokairuen prezioak igoarazten dituela, komertzio arruntak turistei bideratutako denda bilakatzen dituela, eta turistentzako zerbitzuetan lan egiten dutenen lan baldintzak prekarioak izaten direla. Ikusi ditugu turista samaldak hiriko espazioak irabazten –alegia, guri galarazten, hitzaren bi zentzuetan–, gure eguneroko ohitura txikiak kanpotarrentzako esperientzia salgarri bilakatu ahala.

Horregatik, besteak beste, kanpora goazenean ere ez dugu turista izan nahi. Leku turistikoetan derrigorrezko argazkia egin bai –eraikinak, paisaiak, haur irribarretsuak–, baina, gainerakoan nahiago dugu ohiko zirkuituetatik at ibili. Beste argitaletxetakoen aldean *alternatibotzat* dugun gidak auzo *alternatibotzat* jotzen dituenetara jotzen dugu, ezaxola; *alternatibotasunak* berak balio espekulatiborik ez balu bezala; gune horietan turismoa gure pausoz sartuko ez balitz bezala; Venezia sindromea eta ez-turiston disoziazio-ihesa txanpon beraren bi alde ez balira bezala. ■

TXIKITIK ERAGITEN

ARGIA EGUNA 2017

Esker mila festa hau egiten lagundu diguzuelako

Festari zabalkundea eman diozutenoi eta gainerako parte hartzaile guztioi ere, eskerrik asko!

www.argia.eus/argia-eguna

Bertako jakiekin prestaturiko herri bazkarian bildu ohi da Argia Jendea urtero, elkar ezagutu eta solasean aritzeko.

ARGIA EGUNA

Komunitate oso batek bultzatutako kazetaritza independentea

Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria
ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Ospatu dugu Gasteizen Argia Eguna. Kataluniako anabasa guztiaren erdian, buruak ekarri ditugu gurera, eta laugarren urtez Argia Jendearekin gozatzeko aukera izan dugu Arabako hiriburuan.

Lehen aldiz Araban, eta lehen aldiz hiriburuan. Usurbilen berrabiarazi zuen ibilbidea egun honek –berrabiarazi diot, 80ko hamarkadan ere antolatu baitziren hainbat Argia Egun– 2014an, eta ondotik etorri dira Oñatikoa, Ondarroakoa, Gasteizkoa. Leloa guztietan berdina: txikitik eragiten.

Hiriburuan antolatutako festa izanda, itxura batera pentsa dezakegu espazio zabalagoaz hitz egiten ari garenez jaia ere handiagoa izango dela. Edo niri behintzat lehen kolpean logikak burua horra eramaten dit. Uste dut, baina, 2017koa izan dela nik ezagutu ditudan lau Argia Egunetako "sinpleena". Inolako zentzu negatiborik eman nahi izan gabe; askotan sinpletasuna askoz ere eraginkorragoa eta duinagoa da. Festara gerturatutako lagunak ekitaldiz gehiegi gogaitu gabe osatu da aurtengo egitaraua. Sinpletik sinpleegira, ordea, hiru letrako aldea besterik ez dago... "Pote bat hartzeko barra txukunxeagorik ez al zegoen?", galdetuko zion bere buruari han izandako baten batek. Logistika arazoak tarteko, bertako garagardo hotza eta pintxo goxoak jateko aukera izan genuen hala ere. Iluntzean bai, barra eta musika ona nahieran izan zen lepo bete zen Gaztetxean ARGIAk antolatutako kontzertuetan.

Argia Egunera bertaratu ezin izan zenutenontzat, baina, agian komeni da saltokako historia baino, eguna hasieratik bukaerara kontatzea. Beraz, 09:30ean iritsi naiz oraindik eguzkiak epeldu ez duen hiriburura. Ikasle garaietako oroitzapenez bete zait burua Gasteizko Alde Zaharreko kaleetan gora eta behera nabilela, Landatxo kiroldegira heldu naizen arte. Han dira, dagoeneko, patxadaz baina ttirriki-ttarraka topaleku izango dugun gunea atontzen hainbat lagun. Prestatzen ari dira saltokia, "txosna", hormak apainduko dituzten pankartak jartzen ari dira beste batzuk...

OroiTour eta Gasteiz Euskalduna ibilaldiak eguna hasteko

Hasiera ofiziala 10:30ak jota eman zaio Argia Egunari. Oraindik beroan sartu ez direnentzat paseotxoa eginez gorputza berotu eta memoria egiteko Zaramaga auzora ibilaldi gidatua antolatuta dago goizari ekiteko, Martxoak 3 elkarteko kideek lagunduta. 1976ko langile sarraskia du ardatz tour politikoak, baina ez da horretara mugatzen. 70eko

Goian, OroiTour. Ezkerreko orrialdean behean, Gasteizko albokariak. Eskuinean goian Argizaleen Topaketak eta behean, sukalde tailerreko emaitzak jendarteratzen.

hamarkadako gatazka politiko eta sozialak eman nahi ditu ezagutzera elkarteak ibilbidearen bitartez, eta kalea du borrokarako eta memoriarako oinarri. Eta hitz egin digute iraganaz, eta guri orainaldia dela iruditu zaiogu, orduko polizia baten audioan *a por ellos* bat entzun dugunean. Bertan izan da Zaramagako hildako langile baten iloba ere, eta lehen pertsonan kontatu dizkigu bere bizipenak.

Memoria historikoan murgiltzen ari diren bitartean ekin dio bere bideari bigarren bisitaldiak Alde Zaharrean zehar. Euskarak Gasteizen zein bilakaera izan du? Zein da gaur egungo egoera eta zein

dira etorkizuneko erronkak? Galdera potolo hauek eta beste hainbat erantzuten ahalegindu dira GEU Gasteiz Euskalduna euskara elkarteko kideak eta gonbidatuak. Gasteizko hainbat eragiletako lagunak izan ditugu hizlari, eta dozena erdi bat geldialditan azaldu digute Gasteizko euskararen egoera historiaren ikuspegitik, kulturatik, euskalduntzetik, hezkuntzatik, bertsolaritzatik, mugimendu sozialetatik begiratuta.

Argiazaleon topaketak hastekotan zirela, eta gerturatu naiz berriz ere Landatxora. Han topatu ditut haur eta heldu eskuak buztinez zikinduta Nendo Dango tailer jada –gurean behintzat– famatuan parte hartzen. Landare haziak buztinetan bildu, lehortzen utzi, eta inguruak berdetzeko prest. Beste batzuk jolas hezitzaileetan dabiltza, dagoeneko eguzkia gure bizkarrak goxatzen hasia da, eta Gasteiztar lotienak ere –ibilaldietarako ailegatu ez direnak– gerturatuz doaz.

Hurrengo hilabeteetako primiziak Argiazaleon topaketan

Urrutira ikusi dut, buztinezko boletatik begirada aldenduta, aulkiz osatutako borobil bat. Informala. Sinplea. “Hori izango da, bada, Argiazaleon topaketa egiteko txokoa”, pentsatu dut. Eta sinplea bezain gertukoa egiten den zirkuluan hasi gara pixkanaka elkartzen Argiazaleok, txikitik eragiteko gogoz. Hitz egitera baino, entzutera bildu dira ARGIAko kideak, eta komunitateari eman diote hitza gehiegi luzatu gabeko aurkezpenen ondoren. “Nola baloratzen duzue orain hamar bat hilabete martxan jarritako harpidetza eredu berria?” galderatik abiatu da elkarrizketa, eta hari horri tiraka jarri dira mahai gainean lagunen iritziak. Gustura azaldu dira bertaratutako lagunak azken urteotan ARGIAk emandako pausuekin, eta amaierarako gorde du lantaldeak ondorengo hilabeteetarako buruan dituzten lanen aurkezpena. Hogei urte dira ARGIAk interneterako saltoa eman zuela eta webgunerako aldaketak iragarri dituzte, eta 2019an ARGIA sortu zela 100 urte betetzen direla-eta, badarabilte dagoeneko zer edo zer buruan.

Ez gara gehiegi luzatu zirkuluan eserita, eta hori ere eskertzen da. Ez da komeni jendea aspertzea, eta tripa-zorriren bat edo beste aditzerako mugitu gara aulkietatik.

Gasteizko ordutegira egokitu gara, eta bertaratutakoekin hitz egiteko tartea izan dugu 15:30ean hasi baikara bazkaltzeko mahaian jesartzen. “Berandu xamar aukeran, ezta?” aditu diot aldamenekoari. Baina bere buruari erantzun dio orduan barrez: “hori bai, dena ekologikoa eta hurbilekoa! Agian bertako lentejek denbora gehixeago beharko dute egosten”.

Tripak bapo beteta, Mirari Martiarenaren umoreaz gozatu ederra hartu dugu eskaini digun monologoarekin.

NAN jaurtiketa: irabazlea bai, baina errekorrik gabe

Gure herriko gazteen artean esaten den bezala, NAN arrotzen jaurtiketa lehiaketa mitikoaren txanda ailegatu da arratsaldean. Aurtengo txapelduna 33,2 me-

tro jaurtita Zigor Olabarria gasteiztarra da. Baina iaz Ondarroan Oier lekeitiarrak hautsitako markak jarraitzen du errekorra izaten 40 metroko jaurtiketarekin.

Gaztetxea bete jende eman zaio amaiera festari Jon Basagurenen eta Txalainak taldearen kontzertuekin. Baina Argia Eguneko gaua ere bati baino gehiagori luzatuko zitzaiolakoan nago. ■

Ezker-eskuin eta goitik behera: NAN arrotzen Euskal Herriko IV. jaurtiketan jende mordoak hartu zuen parte; ARGIA gertutik ezagutzeko aukera izan zuten heldu eta txikiek Gasteizen larunbatean; Mirari Martiarenak barre ugari sorrarazi zuen bazkalostean; Jon Basaguren Gaztetxean, ordu txikiak arte luzatu zen festa.

ELEKTRIKA
GRABAKETAK

-Grabaketak estudioan eta zuzenekoetan
-Nahasketa analogiko profesionala
-Zuzeneko teknikaria

Ander Barriuso Muñoa
https://elektrikagrabaketak.bandcamp.com/
https://www.facebook.com/elektrikagrabaketak/
elektrikagrabaketak@gmail.com
tlfnoa: 687046386

ARDOAREN IBILBIDEA
ARABAR • ERRIOXA
atseginez betea
www.rutadelvinoderiojaalavesa.com

Mendia Optika
www.mendiaoptika.eus
Argiarekin bat euskalduntasunean lagun

www.araba.eus

EUSKARA
kolore bizia!

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

POSTUROLOGIA

Gorputza orekan mantentzeko, betaurrekoak

Nola mantentzen da pertsona bat zutik? Hori da posturologiak aztertzen duena. Zapaltzeko, ikusteko, entzuteko edota murtxikatzeko moduek gorputz baten postura alda dezakete, garunera informazio desegokia bidali eta bestelako min eta sintomak sortuz. Jatorri bakoitzak soluzio bat dauka.

Gorputz-jarrera arazoak konpontzea xede, betaurreko posturalak darabiltzan Izaro Mariezkurrena, Pasaiako badian.

Ainhoa Mariezkurrena Etxabe
@xorginkeiak

Gorputz-jarrerari lotutako akatsa begietatik, oinetatik, ahotik edo belarrietatik etor daiteke, gorputz atal horietatik bidaltzen baitiogu informazioa garunari. Informazioa egokia edo desegokia izan daiteke; esaterako, begi bat alferra eta bestea indartsua duenak errealitatearen informazio faltsua bidaliko dio garunari. Arazoa lantzen ez bada, garuna egoera horretara moldatuko da, baina ez da egoera normala izango eta horrek ondorioak ekarriko ditu gorputzeko beste atalen batean. Hala kontatu digu Teresa Olabarria Ruiz optometristak: "Gorputzean sentitzen ditugun sintomek, normalean, beste leku batean dute jatorria".

Besteak beste, ezegonkortasun sentsazioak, zorabioak, bertigoak, lunbalgiak, buruko minak, post-traumatismoak eta min muskularrak dira gorputz-jarrera sistema desorekatuta dagoenean senti daitezkeen sintomak. Olabarriak dio medikuek, neurologoek, erradiologoek, otoneurologoek edo oftalmologoek arazorik gabeko gorputzak ikus ditzaketela posturologia lantzen ez badute. Eta mina lausotzeko tratamendu bat jaso ondoren berriro ere sintomak azaltzean beste profesional batzuek landu beharko dutela arazoa: "Gorputz-jarrera aztertzeko garaia izango da.

Profesional horiek hainbat esparrutakoak izan daitezke. Olabarriak optometriaren ikuspuntutik hitz egin du, baina podologoek, dentistek eta otorrinoek ere esku-hartzen dutela kontatu du: "Desoreka nondik abiatzen den jakin behar dugu lehenik, jatorria desberdina izan baitaiteke. Oinetatik badatorkio, podologoarekin landuko du, begietatik badatorkio, ordea, optometristarekin": Olabarriarengana hurbiltzen direnetako asko beste espezialista batzuek bideratutakoak direla esan digu. "Dena konektatuta dugula ulertzea da konponbiderako gakoa. Garrantzitsua da beste espezialisten ikuspuntuak eta lanketak ere ezagutzea".

Betaurreko posturalak

"Esan bezala, nik sistema bisualetik egiten dut lan, begietatik", dio Olabarriak. Horren aurreko konponbideak ikus-terapiak edo betaurreko posturalak dira, edo betaurreko posturalekin egindako ikus-terapiak.

"Lente batek zerbait gerturatzeko edo urruntzeko eta handiagoa edo txikiagoa egiteko balio dezake. Betaurreko hauen helburua, baina, ez da hori, ez delako zertan ikusmen arazo bat izan", dio. "Gorputzeko ardatz bertikala eskuinera mugitua badago, beste aldera mugitzea lortuko dute prismek, ardatza erdira mugitu arte eta, hala, oreka lortu arte. Oinen kasuan ulertzea errazagoa da: zapatetan barne-zolak jartzean zapaltzeko modua aldatuko da eta gorputza egonkortu. Betaurrekoekin, berdina egingo dugu baina begien bitartez. Garuna engainatuko dugu gorputzak jarrera egokia har dezan". Kasu batzuetan betaurrekoekin nahikoa dela azaldu du, eta beste batzuetan betaurrekoak eta barne-zolak beharko direla. Edo hortzetako aparatua.

Eraginkortasuna azaltzeko adibide praktiko bat jarri du Olabarriak: "Bezero bati, zutik zegoela, ezker hanka balantza batean eta eskuinekoa beste batean jartzeko eskatu nion. Bere gorputzak 20 kilo gutxiago pisatzen zituen ezkerrekoan. Begiak ixteko esan nion eta pisua orekatu egin zen. Arazoa argi dago kasu horretan". Pertsona horrek konponbidea bilatu zuen betaurreko posturalen bitartez. ■

Daniel Pardo, ABTS

“BARTZELONAN, GAUR EGUN, EZINEZKOA DA TURISMO JASANGARRIA”

Turismoaren arazoa bere gogorrenean bizi duen lekuetako batetik dator Daniel Pardo: Bartzelonatik. Donostian irailaren 29 eta 30ean egin dituzten Turismoaz Pentsatzeko Topaketa Herritarretan izan da, Turismo Jasangarriaren aldeko Auzoen Asanbladako kide baita, ABTS katalanezko sigletan.

Lukas Barandiaran San Roman
@barandiluk
ARGAZKIA: LANDER ARBELAITZ

Zer da ABTS?

Auzoen Asanblada 40 bat auzo-eragile biltzen dituen koordinazio gunea da. Nik horietako batean hartzen dut parte, “Ciutat Vella ez dago salgai” asanbladan, Bartzelonako erdigune historikoan.

Zein arazo eragiten ditu turismoak auzoetan?

Turismoa bere horretan ez da arriskutsua edo kaltegarria. Hala ere, azken hamarkadetan sustatu diren turismo mailak oso kaltegarriak dira hiri eta auzoentzat.

Gure asanbladan ez dugu arretarik jartzen hasiera batean deigarrienak eta azalekoak diren ondorioetan, besteak beste, hiritartasun jarreretan, zaratan eta elkarbizitzan. Uste dugu turismoak are larriagoak diren arazo sozial batzuk eragiten dituela. Esaterako, etxebizitzak turismora bideratuz eta turismoak hiri horietan etxebizitzari ematen dion balio erantsiaren ondorioz –espekulazioa– prezioak gora egin eta bertakoentzat ordainezin bilakatzen dira. Horrekin lotutako bizilagunen kanporatzeak oso gogorrak izaten ari dira Bartzelonan, eta pentsatzen dut Donostian ere hala dela. Hala, turistifikazioak oso azkar eta errotik hausten ditu harreman komunitarioak.

Eragin gehiago ere baditu...

Bai, komertzio arruntak turistei bideratutako komertzio bilakatzea, eta ondorioz, erabilezin izatea bertakoentzat; kontsumoaren prezioen igoera; espazio publikoaren masifikazioa; mugikortasun arazoak, kale, plaza eta garraio publikoan eta sektore turistikoko lan merkatua bereziki prekario eta esplotatzailea dela. Bartzelonan horren datuak ikusgarriak dira, ostalaritzako batez besteko soldata ez baita iristen soldata guztien batez bestekoaren erdira ere. Gainera, “erabili eta bota” ideiarekin sustatutako masa turismo hiper-kontsumistak hondakin gehiegi sortzen du.

Azkenik, arazo globalagoak ere badaude. Ezin dugu ahaztu turismoaren industriak hazteko joera eta behar etengabea duela, beraz, geroz eta espazio gehiago bereganatzen doa hiriko ekonomian, eta hiriak turismoarekiko menpekotasun handia garatzen du. Turismoa, kalte sozial handiak eragiteaz gain, oso ezegonkorra da, sektoreak berak aitortzen duen bezala. Hala, hiria oso kaltebera uzten du, sektorearen ezusteko beherakada orok kalte handiak eragin ditzakeelako.

Zer esan nahi duzu turismoa hiper-kontsumista dela diozunean?

Batetik, Bartzelonan Boquería-ko merkatuaren adibidea dugu, gune historiko eta artistikoa. Bertako komertzioari bizkar emanda, momentuan kontsumitzeko produktuak saltzen dituzten komertzioz betetzen ari da. Momentuan “erabili eta botatzeko” ohitura zabaltzen ari da. Bestetik, sakonago aztertuta, hiria bera erabili eta botatzeko ideia dago. Instituzioek eta lobby turistikoek iragarki eta promozioen bitartez hiria merkatuan eskaintzen dutenean, dena bilakatzen da kontsumoaren objektu, baita komunitatea, kalea eta jendea ere. Dena salgai jarritako esperientzien mundu bilakatzen da. Kontsumo azkar horrekin ezinezkoa da lekuarekin inolako loturarik sortzea, iritsi, argazkia egin, zerbait edan eta aurrera jarraitzen

baita lekuan zer gertatzen ari den begiratu ere egin gabe.

Turismoaren industriak erabili ohi den argudioetako bat da turismoak aberastasuna dakarrela. Zer deritzozu?

Diskurtso hori txantaia hutsa da. Turismoa desagertzeak lanpostuen desagertzea ekarriko lukeela argudiatzen dute, baina badakigu turismoaren aurretik lanpostu horiek existitzen zirela. Sektore turistikoak beste sektoreetatik erakartzen ditu lanpostuak, eta lanpostu kaskar bilakatzen ditu. Bartzelonaren kasuan, aspalditik dator ekonomiaren kanalizazioa sektore turistikora, beste sektoreak sustatzeari utzi zaio. Egoera hori sortuta, lanpostu kaskarren eta ezerezaren artean aukeratzera behartzen gaituzte, hori hala ez denean eta beste ekonomia motarik existituko ez balitz bezala. Egoera hori sortzearen erantzukizuna, sektore pribatuez gain, sektore publikoan dago. Bartzelonako eta Kataluniako instituzioek hamarkadak daramatzate sektore turistikoarekin elkarlanean. Bestelako sektore ekonomikoak babesgabe uzteaz arduratu dira.

ABTS asanblada berrartuz, nola ulertzen duzue turismo jasangarria? Nola lor daiteke turismo ez-kaltegarri bat?

Oso konplexua da, eta kontraesana ulertzen dugu. Asko pentsatu ostean, uste dugu Bartzelonako gaurko testuinguruan ezinezkoa dela turismo jasangarririk. Baina asanbladan izen hori hartzea erabaki genuen, eta zentzu batean horren alde egiten dugu lan; hau da, aurrez azaldutako diagnostikoan oinarrituta turismoaren desazkunde prozesu adostu bat proposatzen dugu. Turismoaren beherakada oso gogorra izan daiteke, mundu guztia baitago turismoan lan egiten, eta ekonomia horren bat-bateko erortzeak galera handiak eragin ditzake gizartean. Beraz, hori goiz edo berandu gertatuko bada, kalte sozialak izugarriak badira, eta sortzen den aberastasuna lau pertsonak poltsikoratzen badute, zergatik ez dugu egiten herritarren artean adostutako turismoaren desazkunde prozesu kontrolatu eta kalkulatua? Horrek esan nahi du ekonomia turismora bideratzeari uztea. Hots, sektore honek BPGaren %20 batzen badu eta hiriko gainontzeko sektoreetan eragiten badu, goazen gutxinaka sektore turistikoak hirian duen garrantzia murriztera, ekonomia justuagoak sustatzen ditugun bitartean.

Zein momentutan hasi ziren sortzen zuena eta antzeko talde eta plataformak Bartzelonan?

Bartzelonan duela urte asko zebiltzan halako taldeak, baina jauzia auzoetatik harago antolatzea erabaki zutenean egin zen. Etxebizitza, lan prekarietatea, hirigintza eta beste gai ugari landu arren, denen arazoaren matrizea turismoaren industrian aurkitu genuen. Hala, bizilagunek behartuta CiUren Udal Gobernuak turismoari buruzko audientzia publiko bat egin ostean, eta Barcelonetako 2014ko uda beroaren ostean, ABTS sortu genuen 2015ean. Gurea ez da esperientzia bakarra, baina nire ustez bai esanguratsuenetako bat. Gainera, kanpora begira lanean ere hasi gara. Esaterako, aurreko astean kide bat Venezian izan zen Europa osoko taldeak bildu zituen jardunaldi batzuetan. Ni Lisboan eta Donostian izan naiz azken asteetan. Valentzia, Madril eta Tarragonan ere izan gara, eta orokorrean gure ahotsa altxatzeko beharra dagoela ondorioztatu dugu antzeko prozesuak jasaten ari garen Europa hegoaldeko hainbat hiritan.Elkarri lagundu behar diogu, elkar harremandu, une egokia heltzean problematika bera dugun hiriok batera mugi gaitezen.

Uda honetan Euskal Herrian gertatutakoa jarraituko zenuen, zer aholkatuko zenieke mugimenduei zuen esperientziatik?

Lehen gauza, antolatu daitezela. Ez da nahikoa horrekin, baina lehen pausoa da. Sentsibilitate eta arlo desberdinak kabituko diren plataforma zabal bat sortu behar da. Konplexutasunak ditu, entzuteko prest egon behar da, baina hala gizarteko sektore askotara heldu daiteke, eta hori ez bada ere erraza eta azkarra, guri asko lagundu digu.

Zergatik uste duzu medioek horrenbesteko arreta jarri diotela turismoaren problematikari?

Hemen bi guda daude, bata kuantitatiboa, oraindik galtzen ari garena, eta bestea diskurtsiboa. Aspektu kuantitatiboan, turismoaren industriak hazten jarraitzen du, eta oraindik ez gara gai izan gelditzeko. Diskurtsoari dagokionez, berriz, duela sei edo zazpi urte turismoaren errelatoa errelato zoriontsu bat zen, lobbyek eta erakunde publikoek elkarrekin idatzi zuten "dena ondo doa, gehiago nahi dugu" esanez.

Urte gutxian kontakizun hori gezurtatu dugu, bai gure lanagatik, bai eta errealitate gogorrak mugak hautsi dituelako. Industria ohartu denean turismoaren aldeko diskurtsoak funtzionatzeari utzi diola, gurea bezalako diskurtsoak kriminalizatu behar ditu, esanez guk bortizki eta xenofoboki jokatzen dugula. Baina argi dago guk eliteak aberastu eta lurralde horietan bizi eta lan egiten duten pertsonak kaltetzen dituen sistema ekonomiko bidegabe hau baztertzen dugula, ez besterik. Beraz, argi ikus daiteke "turismofobiarena" lobbyek sortu duten eztabaida antzua dela muinari buruz eztabaidatu behar ez izateko. ■

Ur bila basamortuan

Aurtengo udaberriaren bukaera aldera testuaren egilea Palestinan izan zen, Al-Khalil (Hebron) hirian zein inguruko eskualdean. Bertatik bertara izan zuen beduinoen egoera ezagutzeko aukera, eta Israelgo Gobernuak ezartzen dizkien bizi-baldintza onartezinez oharturik, basamortuko biztanleen errealitatea ezagutarazteko asmotan kronika bat igorri du.

Jaume Gelabert
@bonbergant
ARGAZKIAK: BEN VAN DER MERWE

–*Oh, fuck!* –Ohi baino goizago esnatu da Richard, dutxako txandan lehenengoa izateko asmotan. Gazte ingelesari ikaragarri kostatzen zaio esnatzea, altxatzeko beti azkena izaten da eta bere ibileragatik lepoa jarriko nuke checkpointera iritsi arte eldarnioan egoten dela; batzuetan (ez dut idatziko gehienetan eta are gutxiago guztietan, gaiztotzat hartuko nindukezulako) kontrolgune ilun asaldagarria zeharkatu ondoren eta guzti. Bada, gaur alferrikako lana hartu du, apartamentuan urik ez dagoelako. (H)ura da bere desesperazio iturri lehorra, eta gainerakoona, berria ezagututakoan gainerako pisukideongan zabaldu baita etsipena. Ez dakigu zer maila hartu duen hondamendiak: pisua, etxea, auzoa edo Hebron osokoa. Abu Alik, pisuko jabeak, hasiera batean handik bi ordura arazoa konponduta egongo zela esan badigu ere, azken berria da lau egun pasatu arte ez dugula etxean dutxatu edo bonbatik tiratzerik izanen. Bero ikaragarria kalean, hesteak askatzeko beharra eta eflubio dantza komunean zein logelan. *The horror.*

* * * * *

–Umm al Kheirra joateko eskaera jaso dugu. Norbait prest? –Luluk ez du galdera bukatzeko denborarik izan. Joxemarik eta biok geure burua aurkeztu dugu ziztu bizian, berezkoak ditugun sentimendu nobleek bultzatuta. Ez genekien nora joanen ginen ezta zertara ere, baina behintzat dutxa bat hartzeko eta, nola esanen nuke, "giro sobera kargatutik" ihes egiteko abagunea izanen genuen. Bai, egoera zailetan euskaldunak (edo) beti lehenengo lerroan (euskalduna ote naiz ni, Mallorcan jaioa eta hazia eta aldi berean euskaraz dakien gizasemea? Digresioa). "Autobusez ala oinez joanen gara?", galdetu diogu Lulu gure koordinatzaileari. Harridura marka aurpegian iltzatua zuela ikusita, ohartu gara beste ergelkeria bat bota dugula. Hebronetik 19 kilometrora bakarrik egon arren, autoek hainbat buelta eta errebuelta egin behar izaten dituzte herrira iritsi arte kontrolguneak direla eta; oinez joanen bagina geure izerdian itota edo ignizio espontaneoaren biktima hilko ginateke, Umm al Kheir bero izugarriko basamortuan dagoelako. Ez litzateke oso akabera heroikoa izanen. Beraz, Hebronen lan egiten duen umm al kheirtar batekin, Azeezekin, kontaktatu dugu eta berak hartu du gu bere sorterriraino eramateko ardura.

Polizia palestinarraren komisaldegi baten aurrean elkartzea adostu dugu. Azeez iritsi bitartean konturatu gara polizia-etxean giroa lasaia dela, oso lasaia, lasaiegia. Alde Zaharrean bizi izandako esperientzia latz guztiak buruan ditugula, balirudike beste herrialde, planeta, unibertso batean geundela. Edo akaso Palestinako Aginte Nazionala da Who doktorearen telefono-kabinan sartuta beste dimentsio baterako bidaia egin duena? Beste digresio bat.

* * * * *

–Zer ezagutzen duzue nire herriaz? –Poker aurpegia. Bidean Umm al Kheirren berri jakin dugu Azeezen bitartez. Herria 1948ko Nakbaren, hau da, palestinarren exodoaren ondorioa da. Israelgo Estatua sortutakoan, Arad basamortuan bizi ziren hainbat beduinok alde egin behar izan zuten beren guneetatik eta urtetan eta urtetan alde batetik bestera ibili ziren. 1956an Hebron eskualdeko lur

horiek erosi zizkieten Yattako bizilagun batzuei, eta han bertan finkatu ziren. Artzaintzan, beduinoen jarduera nagusian, aritu ziren, eta bizimodu arrunta ahalik eta lasaien egiten jardun zuten 25 urtez, hori posible baldin bada munduko bazter honetan. Bazirudien behingoz txokoa aurkitua zutela. Baina 1981ean dena aldatu zen. Israelgo herritar batzuek erabaki zuten beduinoen lur horiek aproposak izan zitezkeela beren etxeak eraikitzeko. Hori normala da, esate baterako neronek ere askotan pentsatu izan dut pisu txikian bizi beharrean, kontxo, zergatik ez?, lorategia duen etxe batean bizi nintekeela, eta dudarik ez dut nire (ia) akatsik gabeko jarduera profesionalak soldata handiagoa merezi duela. Zoritxarrez, Nafarroako Gobernuak ez du Israelgo Estatuak bezain eskuzabal jokatzen eta gure pisu txiki baina atseginean liburuak kokatzeko Tetrixean jokatzen jarraitu beharko dut luzean, eta gehienetan galdu. Israelgo Gobernuak, aldiz, zenbait lur konfiskatu zizkien legezko jabeei, hots, beduino arabiarrei, eta Karmel kolonia eraiki zuen. Herriak zer eskatu, hura eman. Erraza, ezta?

* * * * *

–Iritsi gara. Hau gure Herriko Etxea da. Azken urteetan bi aldiz eraitsi dute eta seguru gaude hemendik gutxira berriz saiatuko direla botatzen. –Etxearen aurrean lagun batzuk metalezko estruktura bat altxatzen ari ziren. Gehienak ez ziren arabiarrak, eta geroago jakin dugu okupazioaren aurkako judu talde bat zela. Oraindik Azeezen autoan oin bat genuela lanean sutsu eta trebe jardun dugu, euskaldunak (edo) baikara, eta Awdah lider itxurako gazte baten agindupean egitura bukatu dugu. Gero, oihal batez estali eta barruan gozo egoteko koltxoi eta kuxin koloretsu batzuez hornitu dugu. Zalantzarik gabe, euskaldunon (edo) ekarpena erabakigarria izan da denda garaiz prest egon zedin. Ameriketara iritsi ziren lehenengo europarrak eta Unibertsoko arrantzalerik hoberenak izateaz gain, jakina da Aitorren oinordezkoak oso iaioak izan ohi direla denda beduinoak eraikitzen Arabiako basamortuetan. Ostrakek noizbait frogatuko dute.

Gure ekintza gogoangarri epikoak herritar dezente ezagutzeko aukera eman digu: Ali, Ahmed, Awdah, Mahmoud... Benetan atseginak. Ez dakit zenbat litro te edan ditugun, eta afaltzera ere gonbidatu gaituzte, bi aldiz! *Palestina style*ko dieta. Andreek ez dute gurekin afaldu, ez gela berean izan, Azeezen emaztea lipar batez eta ama, luze, izan ezik. Hori bai, kalean gurekin elkartu diren emakumeak oso abegikorrak izan dira eta baten batekin hitz batzuk trukatu ditugu, ohiko agurrak eta antzeko formulismoak besterik ez. Irribarre atsegin batez egin ditugu topaketa hiperlaburrak. Infusioak bata bestearen atzean edan bitartean, herriaren egungo egoera ezagutu dugu.

* * * * *

–Palestinako Aginte Nazionaleko ordezkaritza etorri zen, agindu asko egin eta 3.000 shekel (770€) eman zizkigun. –Gure harridurarako, Nafarroa ez da zonifikatua dagoen lurralde bakarra. Osloko akordioen ondorioz, Zisjordania hiru eremutan banatuta dago. Hasiera batean, zonifikazio horrek behin-behineko izan behar zuen, eta Palestinako Aginte (ejem) Nazionalak gero eta eskumen gehiago hartu behar zituen Palestinako Estatua sortu arte. Betiko behin-behinekotasun horiek. Ikus dezagun nolakoa den sailkapen hori:

A gunea Palestinako Aginte (benetan?!) Nazionalaren agindupean dago, eta segurtasunaz zein afera zibilez arduratzen da. Lurraldearen % 18 da, eta bai hiri nagusiak, bai beren ingurua hartzen ditu, koloniak izan ezik, *of course*. Teorian, israeldarrak ez litezke sar zonalde horietan, baina gizakiak oraindik ez du ezagutzen Israelgo armada ahalguztidunak sartzeko eskubiderik eta ahalmenik ez duen tokirik.

Palestinako Aginte (kar, kar, kar) Nazionalak eta Israelgo Estatuak B gunearen kudeaketa partekatzen dute. Palestinarrak eginkizun zibilez arduratzen dira eta israeldarrekin batera betebehar militarrez. Hau da, Netanyahuren neska-mutilak zonalde horretan sartzen direnean Ramallahko gobernuaren indar ausartak oroitzen dira, zera, gunearen beste puntan zerbait egin behar zutela, momentuan burura etortzen ez zaiena, baina seguru daude bidean gogoratuko dutela. Hori bai, harainoko bidaia ahalik eta azkarren egin dadila. Eremu horiek Palestinako lurren % 21 hartzen dute, eta bertan ez dago koloniarik. Nola bestela?

Israelgo Estatuak C gunearen gaineko eskumen zibil eta militar totala du, totalagoa esan nahi dut. Lurraldearen % 61 da, eta honetan bai, kolonia guztiak sartzen dira (horren inguruko zalantzarik?), koloniak konektatzen dituzten errepideak, zeinetan israeldarrek baino ezin baitezakete ibilgailua gidatu, lurrak eta "segurtasun eremuak", Harresiaren ondoko lurrak kasu. Egun 400.000 kolonok jainkoak emandako eremuan dute etxea eta 150.000 inguru palestinar, gehienak beduinoak, ozta-ozta bizi dira jainkoak oraindik kendu ez dien lur apurrean. Umm al Kheirreko biztanleei azken taldeko partaide izatea egokitu zaie.

* * * * *

–Koloniako oiloek ez dute iluntasuna ezagutzen. Guk ez dugu argindarrik. –Buelta bat eman dugu herrian, azkarra herria txiki-txikia delako. Futbol zelaia ikusi dugu, "Bartzelona ala Madrid?" galderari "Athletic de Bilbao" behin eta berriro erantzunez. Harritzekoa da zenbat dakiten Palestinan Espainiako futbol txapelketari buruz, nik baino dezente gehiago; Osasuna eta guzti ezagutzen dute. Belarrik gabeko zelaitik harri koxkor batzuk kendu ditugu, bihar partida dagoelako eta ahal dela lesioak saihetsi behar direlako, eta ondoren Herriko Etxean argazki batzuk ikusi ditugu, denbora pasan irrikan espero genuen momentua iritsi arte. Noizbait dutxatzeko desio lizuna betetzeko aukera izango genuen! Ura irudikatu dut nire gorputzaren alderdi ezkutuenak freskatzen eta xaboiaren usai goxoa nigandik kirats sarkorra uxatzen, txorrotaren azpian "Ikusi mendizaleak" abestu bitartean; oilo ipurdia jarri zait pentsatze hutsarekin. Baina, *oh, fuck!*, ezin izan dugu gure ametsa bete, herrian ez baitago ur korronterik eta elementu likidoa oso urria eta preziatua da hemen. Okupazioaren beste ondorio anker bat da.

Mahmoudek azaldu digu Israelgo Estatuak C guneko biztanleen oinarrizko beharrak bete beharko lituzkeen arren, kolonoenez baino ez dela benetan arduratzen. Are gehiago, baldintzak zailtzea beduinoak beren lurretatik ateraraztеko estrategia bat da, eta horregatik, adibidez, arabiarrek ez dute ur korronterik, ezin dute dagozkien lurretan eraiki eta argindarra baldin badute, beduinoek beraiek erositako sorgailuari eta eguzki panelak jartzeko Alemaniako laguntza programa bati esker da. Beste estrategia batzuk dira, adibidez, dirua eskaintzea herritik ateratzearen truke edota zuzenean etxeak eraistea eta familiak kalean (beno, kalerik balego) uztea. Lehen aipatu bezala, bulldozerrek Herriko Etxea bi aldiz bota dute, soldaduek eta beren kolore eta neurri guztietako armek babestuta. Bai eraitsitako Herriko Etxea bai suntsitutako beste etxe batzuk Europar Batasunaren laguntzaz eraiki ziren. Gora nazioarteko kooperazioa!

Hala ere, ez dut argindarrarena erabat sinetsi, herriaren gainetik goi-tentsioko kableak pasatzen baitira. Gezurretan harrapatzeko asmoz, Mahmoudi galdetu diot zer diren kable horiek. "Kolonia ikusten duzu?". Nola ez, herria eta kolonia elkarren ondoan baitaude, hesi batek banandurik. Kolonoren bat *footing* egiten ikusi dut, besteren bat txakurra ateratzen. Noizbait beduinoena izandako lurrean eraiki dutenak itxura atsegina du, urbanizazio modernoarena, erretiratuak bertan bizitzeko ideala. Lasaitasunaren oasia ematen zuen kolono baten Ak 47 edo Cetme edo dena delakoa ikusi dudan arte. -Bada, kable horiek koloniatik kolonoen oilo haztegira joaten dira. Guk ez dugu argindarrik. -Oilategiraino ibili gara eta egia da, ezin izan dut Mahmoud hutsean harrapatu.

* * * * *

–Ez ezazue uste berehala lokartuko zaretenik. Gaur gauean mintzatu eginen gara, barre eginen dugu eta agian dantzatu eta guzti eginen gara. –Horrela mintzo zaigu Awdah. Trebeziaren trebeziaz eta inon den lanez eraiki dugun dendan eman dugu gaua. Zorionez, eta batzuen uste maltzurraren kontra, ez da erori. Awdah eta Ahmedekin solasean aritu gara eta lehertu arte egin dugu barre gaueko ordu txikietan. Dantza egiteko saiakera bat ere izan da, baina horretan geratu da, jainko guztiei eskerrak, neka-neka eginda nengoelako. Oso gazte atseginak dira eta ez dute gure kiratsari buruzko aipamenik egin. Estimatzen da. Laurok elkarrekin egin dugu lo. Alde txikiagatik izan bada ere, zurrungaren lehian euskaldunok (edo) nagusi.

* * * * *

–Ura itzuli da. Dutxatu gaitezke. –Goizean goiz esnatu gara eta inguruan buelta bat eman dugu eskolaraino. Herrian esan digute unibertsitario asko daudela herrian, Hebronen ikasitakoak. Eta egia ematen du, behintzat gurekin dauden ia guztiek karrera edo graduren bat ikasi baitute, edo horretan ari dira; ikus-entzunezkoak, ingeniaritza, filologia eta irakasle-ikasketak dira ezagutu ditugunak. Hamad heldu den urtean Londresera joanen da Zuzenbidea ikastera, beka bati esker. Esan digu bukatu bezain pronto herrira itzuliko dela, ikasketak burutu nahi dituelako herrikideen baldintzak hobetzen laguntzeko. Auskalo zer ekarriko ote dion etorkizunak.

Eskolatik bota gaituzte azterketak egiten ari zirelako eta gure presentziak arreta galarazten omen zielako ikasleei. Bale, bagoaz. Bidean artzain batekin egin dugu topo eta elkarrizketa bizia izan dugu, hark arabieraz eta guk ingelesez, konturatu arte berak gure ingelesa guk bere arabiera bezain "ongi" ulertzen zuela; beraz, arabiera-euskara izatera pasatu da solasaldia. Esan nahi nuke munduko herri zapaldu guztiok hizkuntza berbera dugula, hau da, elkartasunarena, edo horrelako lema epiko-poetikoren bat bete dela, baina egia berdaderoa da ez diogula elkarri deus ulertu. Eta hala ere denbora dezente eman dugu keinuak egiten, interpretatzen saiatzen eta sekulako azalpenak ematen.

Bazkal ondoren futbol partida ikusi dugu, arratsaldeko 16:00etan! Imajinatzen ahal duzu futbol partida bat sauna batean? Bada, horrelako zerbait antolatua zuten. Beharrik duela urte batzuk belauneko lesioa izan nuen, suizidio kolektibo saiakera horretan parte ez hartzeko aitzakiarik ezin hobea izan baita. Joxemarik ez du aitzakiarik asmatzen minutu bakar bat ere galdu; kamera eskuan, eserlekutik altxatu eta irudi batzuk hartzen hasi da. Etxeko taldeak irabazi du, noski. Bestalde, Luluk hots egin digu eta, besteak beste, dutxatu berri zela kontatu digu. Richard ere dutxa hartzekoa omen zen, siestatik esnatutakoan. Inbidia bekatu txarrenetakoa omen da eta gu bekatari handiak gara. Badugu ura pisuan.

* * * * *

–Itzuliko zarete? Esaiezue zuen lagunei hona etortzeko nahi dutenean. –Despeditzeko ordua iritsi da, Hebronerako bidea hartu behar baikenuen. Mesedez itzultzeko esan digute eta guk baietz, itzuliko garela. Gurekin elkartu diren lagunak benetan maitagarriak eta atseginak izan dira, hunkitzeko punturaino, are gehiago bizi duten egoera ezagututa. Eta ez nuke palestinar guztiak (edo, esate baterako, Amazoniako indigena guztiak, edo arbizuar guztiak une orotan) superfantastikoak direla dioen topikoa adierazi nahi, baina egia da gurekin izan diren beduinoek gustura baino gusturago sentiarazi gaituztela. Nolanahi den ere, batez ere bueltatuko ginateke nazioarteko ordezkarien presentzia beharrezkoa delako Umm al Kheirren; horrela jakinarazi digute herriko biztanleek. Ziur dira edozein momentutan bulldozer israeldarrak etxebizitza gehiago eta Herriko Etxea berriro eraisten saiatuko direla. Zoritxarrez, litekeena da Europa edo Ameriketatik etorritako lagunak izanda ere, etxebizitzen bukaera aurrekoen antzekoa izatea; baina, aktibisten testigantzari esker, injustizia hori ez litzateke isilpean gordeko, edo isilpe absolutuan ez, behintzat.

* * * * *

–Atera zaitez komunetik, Richard! *Go out!* Dutxatzeko ni lehena! Ez, nik gehiago behar dut, hautsa gorputzaren zulo guztietan sartua dut eta! –Oihuka eta prakak jaisten hasiak sartu gara pisuan Joxemari eta biok, dutxan lehenago nor sartuko zen lehia gupidagabean buru-belarri. Oilo-ipurdia, freskotasuna, usain goxoa, plazeraren plazera, *akabosea*... –Mutilok, CPTkoek hots egin digute Mahmounn atxilotu dutelako–, izan da Luluren agurra. Merkatuan atxilotutakoan, soldaduak bere etxera joan dira anaia txikiaren bila. Zorionez mutikoa ez zegoen han, baina militarrek familiarrak mehatxatu dituzte: esan diete gutxien espero dutenean itzuliko direla, Mohanned harrapatuz gero hil arte jipoituko dutela, eta senideak ere egurtuko dituztela. Eskatu digute faborez gaua beren etxean pasatzeko, benetan ikaraturik daudelako. Goazen lehenbailehen. *–OH, FUCK!* ■

Zergatik ikusten da Kataluniatik posible Euskal Herritik ezinezkotzat duguna?

Urriaren 1eko erreferendumera zanbuilatxo bat egin genuen Kataluniara. Han egonik, iruditu zaigu ez dagoela beste aukera errealagorik Espainiarengandik bereiztea baino: independentzia, konfederazioa, edo nahi dena, baina parez pareko harreman bat hastea. Euskal Herrian denek esaten digute Espainiak jango dituela, katalan hauek ez dakitela zer datorkien... Zergatik ez da jasotzen Euskal Herrian Kataluniako herriaren indarra?

Estitxu Eizagirre Kerejeta
@eeizagirre

Balio positibo denak independentziarekin lotzen dituzte soberanistek uneoro, bai erreferendum eguneko oharretan, mobilizazioetan, telebista eta irratiko diskurtsoetan... "Bozkatzea demokrazia da", "hitz egiteari bai esaten diogu, baina oinarrizko eskubide bat bermatzeari uko egin gabe", "katalanak bake-jendea gara", "Gure bidea ez doa inoren kontra", "bandera españolak ere ongi-etorriak dira", "jarraitu nahi dugu orain arteko harreman onak izaten Espainiarekin", "jarrera denak errespetatzen ditugu, baita urriaren 8an manifestatzen ari direnak ere", "Ez gara eroriko ultren eta polizien probokazioetan", "une larriotan eutsiko diogu duintasunagatik". Urriaren 3an Greba Orokorra eta eskoletan klabelin eskaintza egin zituzten. Nou Barris langile auzora jo genuen, eta entzun genuen auzotar bat esaten "eurek ostiak ematen dizkigute, eta guk haiei klabelinak... beno, beste pixka batean jarraituko dugu horrela". Emakume bat inguratu zitzaion eta gozo gozo esan zion "horrek egiten gaitu indartsu, gu ez gara eurek bezalakoak",

Komunikazioa eta irrati eta telebista publikoa

Independentziaren bidea pertsonen balio gorenekin lotuta, diskurtso eta jarrera aldetik jende osasuntsua eta zoriontsua dira egun independentistak. Kantxaren erdian hain ongi kokatuta, besteak dira, unionistak, Espainiako nazionalismo itxia, zokoan eta modu guztiak galduta ageri dena, haserre, argudio gisa beldur faltsuak zabalduz, indarkeria zabarra erabiliz egoera beste inola ezin duela kontrolatu erakutsita...

Ezberdintasun handia dago, ostera, Kataluniak eta Euskal Herriak nola egiten duen liseriketa: Kataluniako telebista eta irrati publikoan, eta kalean, Espainiaren propagandari argudioekin, umorez, eta politikoki erantzuten zaio. Poliziak eta Guardia Zibila *pitorreorako* maskota bihurtu dira Piolin eta guzti; erreferendumaz esan diren astakeria bakoitzari argudio gordinez eta umore zirikatzailez erantzun diote telebista publikoan, Espainiako erregearen diskurtsoak ekarri du Polonia saioaren ale eder bat, Pereten erritmoan gitarra jotzen agertzen duena Franco, erregea tartean sartzen dela, youtuben ikustea merezi duena. Catalunya Ràdio entzuten gindoazen kotxean, eta algaraka malkotan jarri gintuzten Guardia Zibilak biktima handienak bailiran agertzeko Espainiak egin zuen kanpainaren gainean egin zuten umorearekin.

Umorea gai edo egoera gordinena landu eta liseritu dugunean soilik egiten omen dugu. Horregatik omen da osasungarri. Katalunian etengabe ari dira horretan, eta hain urrun iritsi izateko erramintetako bat izan dela aitortu zigun herritar batek erreferendumeko eskola defendatzera zihoala 5:00etan: "bestela ez dago zentzugabekeria handi hau eramaterik".

Euskal Herrian harrapatu gaitu Kataluniatik egoitza fiskala Madrilera mugitu omen duten enpresen albisteak, edo beldurra sartzeko zabaldu duten propagandak. Euskal irrati eta telebista publikoak puntan dabiltza aktualitateko "berri" horiek zabaltzen, ez, ordea, berri horiekin batera errealitatea interpretatzen, benetako arriskuak eta beldur mezuak bereizten... umoreaz zer esanik ez, ikusi TV3 edo entzun Catalunya Ràdio eta ea hemengoak zer iruditzen zaizkizun... Euskal Herrian ez dugu digestiorik egiten, eta Espainiarengandik etor litekeen errepresioaren beldurrak paralizatzera garamatza. "Oso ongi katalanak, orain arte lortu duten guztia

garaipen handia da, baina ezingo da, ez diete utziko, ikusiko dute...".

Ikusteko dagoena, katalanek gertaera eta eraso hauen denen aurrean nola erantzungo duten da. Bi pista: Nou Barrisen, Agora eskola txikituaren aurrean, kontatu ziguten erreferendumaren eguna nola joan zen eta Poliziak eman zien jipoia, juxtu eskola horretan mahaiko lehendakari zenak eta lehen lerrotik ikusi zuen gizon batek. Mingots, begiak beteta, argi adierazi ziguten Poliziak zaharrengana jo zutela zuzenean egurra banatzera. Eskolaren atea defendatzen sasoikoenak zeudela, eta zaharrei eta mugikortasun arazoak zituztenei utzitako pasillora jo zuela poliziak, atea bestaldean egonik ere. "Guk hori ikusita indarkeriaz erantzungo genuela usteko zuten, erreakzio horren bila egingo zuten beren operazioa, bestela ez da ulertzen, 2.300 eskoletatik 100 bakarrik hautatu izana, eta ez gainera jendetsuenak, eta gure auzoa, behintzat, unionistenetakoa". Galdetu genien jipoi horrek herritarren artean beldur edo eskarmenturik ekarri zuen: "Alderantziz. Gaurko manifestazioan ikusiko dituzu erreferendumean bozka ematera joan ez ziren herritar asko. Esan digute 'ni ez naiz independentista, baina ez dut nire herritarrak txikitzerik onartzen'".

Balioetan ongi kokatuta, eta Espainiatik datozen erasoak seinalatuz, argudiatuz eta umore gai bihurtuta, independentismoa jendea irabazten doa, baita egun hauetan ere.

Agoniazko 45 minutu bizi izan zituztela ere kontatu ziguten. 9:00 zen arren ordu ofiziala, 9:30ean zabaldu omen zen euren eskola botoa emateko, jakina denez, Espainiako Gobernua Generalitatearen sistema informatikoa saboteatzen aritu baitzen, eta informatikarien gerla hark markatu zuen zein tartetan bozka eman ahal izan zuten eta zein tartetan ez. 9:30ean eskola zabaldu, eta lehen berriak iritsi omen zitzaizkien, polizia Nou Barris auzoko beste eskola batean sartua zela, bortizki: "zaharrek zuten bozkatzeko lehentasuna, lehenbailehen arriskutik aldentzea nahi baikenuen. Ate aurrean zaharren pilaketa handia sortu zen, eta guk esaten genien zer zen gertatzen ari zena...". Handik hamar minutura, auzo bereko beste eskola batean, Agoratik gertuagoko batean, Poliziaren lanaren beste froga bat, oraingoan argazki eta guzti: "errepikatzen genien, gerturatzen ari dira, etorriko dira, etorriko dira, begira argazkiak... eta zaharretan inork ez zuen pauso bat atzera eman. Bozkatu nahi zuten". Erreferendumaren egunean zaharrengandik mezu hori jaso genuen: "Urte askoan ez didate bozkatzen utzi, eta horrekin ez da jolasten". Agorako gertaerak kontatu zizkigun gizonak horrela zioen: "Nire bozka lapurtua izan zen, beste 700.000 bozkekin batera. Oraindik ez dakigu horiek denak non dauden eta eurekin zer egin duten".

Bozka emanda eskolatik ateratzen zirenean, jendearen txalo zaparrada artean, batzuek esaten zuten: "Bozkatu dut. Sistemak funtzionatzen du". Sistemak funtzionatzen du, astebetera konturatu gara gerra informatikoaren garrantziaz, Nacio Digital-ek *Així es van fer els ciberatacs contra el referèndum* artikuluan dugu ederki kontatua.

Baketsuak irmoa esan nahi du

Egiteko darabilten modua baketsua eta festa-modukoa bada ere, sekula ez dute helburua dudan jartzen, alderantziz, indartzeko erabiltzen dute modu baketsu eta irmo hori. Erreferenduma egitea zen urriaren 1eko helburua, eta garaipen handia izan zen egin izana. Polizien jipoi basatiek egun hura minarekin ere lotzea lortu dute, baina garaipena izan zen gerra informatiko isila irabazi izana, ehun milaka herritarrek eskolak fisikoki defentatu izana, mehatxupean egiten ari zen erreferendumean hainbeste herritarrek bozka eman izana... inork ez zuen "Espainiako legearen araberako" formula edo saihesbiderik erabili egun horretako ekintza denak burutzeko. Inork ez zion iskin egin helbururari. Eta bizi izan genituen poliziari herritarrek modu baketsuan irabazi zioten uneak: Graciako Vedrunan kalez jantzitako poliziak zebiltzala somatuta, haiek joan artean auzokoak soilik bozkatu ahalko zutela jakinarazi zuten. Auzo Gotikoan zarataka bidali zituzten kalez jantzitako beste bi polizia. Irudi epikoak ikusi ditugu, herritarrek nola bidali dituzten poliziak eta beren autoak atzeraka erdi-korrika txikian... Baketsuak irmoa esan nahi du eta eraginkorra, Katalunian.

Praktikan ematen den urrats bakoitza berme da hurrengo urratsetan konfiantza izateko. Hala adierazi zuen Jordi Turull Generalitateko bozeramaileak TV3-n, Espainiako erregeak hitzaldia eman eta biharamuneko 8:30ean, kazetariak galdetu zionean, "baina Mossoen agintea hartuko du Espainiak, telebista hau itxiko digute!"; Turullen erantzuna: "eta ez genuen erreferenduma egingo eta egin genuen, eta ez zen bozka-kutxarik egongo eta egon ziren, eta ez zen bozka paperik egongo eta egon ziren... beraz... lasaitasuna".

Irudimena erakutsi dute, baina inoiz ez mezuak eta helburuak arintzeko. "Hau geldiezina da" esaten du Katalunian erreferendum bueltako egunak bizi izan dituenak: "Puigdemonti, edo Espainiak ez dio barkatuko, edo herritarrek ez diote barkatuko". Lerro hauek idazterakoan ezezaguna zitzaigun astearte arratsaldeko adierazpena, baina Euskal Herritik begiratuta Espainiako presioei aurre ez egitea ezinezko badirudi, Kataluniatik ikusita herritarren borondate erabat zilegiari iskin egiteak dirudi ezinezko, doan lekura doala "presidente! presidente!" oihuka hartzen dutenarengandik.

Inork ez dakigu independentzia edo harreman parekatuago bat bederen lortuko duten, baina askok sinisten dugu inork lortzekotan katalanek lortuko dutela, eta inoiz lortzekotan orain. Hori errepikatzen digute beraiek kalean: "orain, edo beste 300 urtean ez". ■

Hizkuntza Eskubideen Protokoloa

ZERTAN DA URTEBETE GEROAGO

Abenduaren 17an urtea beteko da zenbait eragilek Donostian Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa aurkeztu zutenetik. Orain, protokoloa kaieren bidez praktikan jartzeko garaia dela adierazi du Paul Bilbao Kontseiluko idazkari nagusiak.

Jon Ander De la Hoz
ARGAZKIA: KONTSEILUAK UTZIA

Agendak estu hartuta dabil azkenaldian Paul Bilbao Kontseiluko idazkari nagusia. Korsikatik itzuli berria da, Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloari lotutako bidaia tarteko. Hegazkin ugari hartu ditu Bilbaok azken urtean, iazko abenduan sortutako hitzarmenean sakontzeko asmoz. Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburutzaren amaieraz geroztik, Kontseilua da protokoloak marraztutako bide-orria betetzen ari dela bermatzen duen eragile nagusia.

Bilbaok uste du proiektuak oihartzun dezentekoa izan duela lehen bederatzi hilabeteetan. Bere esanetan, "protokoloa bere bidea urratzen ari da", eta horren adibide da Alemaniako Udako Ikastaro batzuetara joateko deia jaso izana: "Horrek erakusten du interesa badagoela". Sare bat sortu dute eragileen artean, eta laster *newsletter* bat bidaliko diete protokoloaren gainontzeko sustatzaileei, eman beharreko pausoak azaldu eta ELENeko –European Language Equality Network (Hizkuntzen Berdintasunerako Europako Sarea)– gainontzeko partaideak akuilatzeko.

Hurrengo urratsetako bat protokoloak nazioarteko erakundeetan legitimazioa izatea da. Hiru erakunde dituzte jomugan: NBE Nazio Batuen Erakundea, Europako Kontseilua eta ESLA Europako Segurtasun Lankidetzako Antolakundea. NBEn, esaterako, urtea amaitu aurretik aurkezpen bat egin nahi dute. Europako Kontseiluaren Estrasburgoko egoitzan, aldiz, otsailean izan ziren eta hainbat batzorderekin harremana egin zuten.

Tokian tokiko erakundeek, batik bat, parlamentuek, protokoloa aitortzea da etorkizunerako ezarri duten beste helburuetako bat. Bide horretan zenbait bilera egin dituzte han-hemengo erakundeekin. Euskal Herrian, Kontseilua EAEko eta Nafarroako legebiltzarretako presidenteekin bildu da; Korsikan eta Galizian agintariekin eta eragileekin bildu dira. Hain justu, Korsikako Biltzarreko presidente Jean-Guy Talamonik begi onez hartu du proiektua, eta protokoloa parlamentuan aurkezteko asmoa adierazi du. Katalunian bertako CIEMEN eta Linguapax aritu dira bileretan, eta Generalitateak Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa "oso gertuko" duela adierazi du Bilbaok.

Protokoloaren indargune nagusiak bere baloreak direla uste du Kontseiluko idazkari nagusiak. Horien artean, bizikidetza eta demokratizazioa azpimarratu ditu: "Guk hizkuntza aniztasunaren kudeaketa desegokia agerian jarri dugu. Europan izan diren liskar gehienak ez dira estatuen artekoak izan, estatu barruan gertatu dira. Hizkuntza dago erdian, eta hizkuntza boterea da, baita ekonomikoa ere. Beste hizkuntza bat dakienak lan hobea duela edo ikasteko erraztasun gehiago dituela jakitean, talkak sortzen dira estatu barnean". Horregatik, Kontseiluko kideak dio hizkuntza-komunitateen arteko aukera berdintasunean sinesten duela, eta horiek bermatuz gero hainbat gatazka saihestuko liratekeela. Bere esanetan hizkuntzen arteko aukera berdintasunaren bila joan behar da, eta nazioarteko erakundeek zeresan handia dute.

Sare propioa handitzea ere jo du erronkatzat Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloak: "Berez, gure asmoa ez da kuantitatiboa, kualitatiboa baino. Gutxienez, hizkuntza bakoitza ordezkatuko zuen eragile bat nahi genuen proiektuan. Europako oso hizkuntza gutxitu gutxi geratu dira kanpoan. Behin hori lortuta, erakunde horiei biderkatzeko eskatuko diegu, euren hizkuntzetan sare trinkoago bat osatze aldera".

Kaiera, tresna garrantzitsua

Protokoloaren luzapen gisa kaiera abiatuko dute sinatzaileek. Tresna garrantzitsutzat du Bilbaok: "Ehun eragiletik gora dabiltza inguruan. Agian ez du balio loteslerik izango, baina zuzenean

Irailean bildu ziren Kontseiluko Paul Bilbao eta Haizpea Abrisketa Korsikako Biltzarreko presidente Jean-Guy Talamonirekin. Protokoloa parlamentuan aurkezteko asmoa adierazi zuen.

edo zeharka milioika hiztun ordezkatzen dituen tresna kontuan hartu beharrekoa da".

Hiztun komunitate bakoitzak protokoloa norbere hizkuntzan bideragarria izan dadin prestatuko duen bide-orria da kaiera: "Hizkuntza bakoitzaren egoera ezberdina da, eta baita tokian tokiko amarauna instituzionalak ere. Beraz, hor jasotzen diren neurriak bakoitzak bere inguruaren arabera jorratuko ditu". Azken xedea, Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloak ezarritako 185 neurriak betetzea da. Bakoitzak bere erritmoan egingo du, eta tarteko urratsak ere kontuan hartu ahal izango dira: "Erritmoa ezberdina denez, ez da beti kolpetik beteko, kasuistika guztiak ezberdinak direlako. Esaterako, Kataluniako Principat-ean neurrien %80tik gora beteta dituzte, eta beste leku batzuetan laurdenik ere ez".

Kaierak lantzeko azterketa bat egiten da; ondoren, tokian tokiko eragileek esaten dute bost urte barru noraino iritsi nahi duten, eta hamar urtean noraino: "Batzuei irakasleak trebatzea interesatuko zaie, frisieraren kasuan bezala, eta besteei zinema hizkuntza propioan lantzea". Dagoeneko hainbat tokitan hasi dira kaierak prestatzen. Besteak beste, Aragoin eta Korsikan lehen pausoak eman dituzte, beste zenbait lurraldetan bezalaxe.

Euskararen kaiera aurten argitaratzeko asmoa dute. Bilbaoren esanetan, "guretzat kaiera erronka bat da, eta 2017an inbertsio handia egin dugu prestatzeko. Sinatu zuten eragileekin harremanetan jarri eta eremuz eremu ari gara iritziak jasotzen". Halaber, Kontseiluan jakitun dira euskararen kasuan egoera berezia dela zatiketa administratiboa tarteko.

ZER DA PROTOKOLOA

Europako hizkuntza eskubideak bermatzeko bitartekoa da. Hizkuntza gutxituetako 200 eragileren eskutik 185 neurri zehaztu ziren. Neurri horiek hartuko balira hizkuntza eskubideak errespetatuko lirateke. 2016ko abenduan aurkeztutako protokoloaz informazio gehiago: www.argia.eus/argia-astekaria/2526/donostiako-protokoloa

Hala ere, ikuspegi nazionala lantzeko beharra dagoela uste du Bilbaok. Kaiera bakarra izango da, baina 185 neurrietako bakoitzak zein erakunderi dagokion jartzen badu, Euskal Herriko kasuan hiru administraziori egingo zaio erreferentzia kasu askotan. Erritmoak ere, herri bakoitzeko errealitateak ezagutzen dutenek markatuko dituzte: "Guk bide-orria zein den esango dugu, baina gero bakoitzak landuko du bere eremuan, baita sektoreka ere". Hedabideak jarri ditu adibide.

Udalek zeresan berezia dute prozesu honetan, batetik bestera aldaketa handiak daudelako: "Getxo eta Azpeitiako errealitateak ezberdinak dira". Zer esanik ez Euskal Herriko hiru eremu administratiboak kontuan hartuta. Bilbaoren aburuz, EAEko eta Nafarroako aldundiek praxia gehiago lantzen dute, eta neurri asko Eusko Jaurlaritzara edota Espainiako Gobernura bideratuko dira, eskuduntzak haiek dituztelako. Aldiz, Ipar Euskal Herrian araugintza guztia Frantziako Estatuaren esku dago, eta herriko etxeek sustapena egin dezakete. Kasuistika hori guztia kontuan hartu beharko da kaierak lantzerako garaian. Hizkuntza eskubideak bermatzeko 185 neurriak betetzea da helburu nagusia. ■

BABESLEA: **BIZKAIKO FORU ALDUNDIA**

BIZIA ETA TRONUA **XAKEAN** IRABAZI

Nagore Irazustabarrena Uranga
@irazustabarrena

Granada, 1391. Yusuf II.a erresuma nazariko errege izendatu zuten Muhammed V.a hil eta gero. Agintaldi laburrean arteak eta zientziak bultzatzen ahalegindu zen, baita barne gatazkak itzaltzen ere. Hainbat senitarteko giltzapetu eta hil zituen konspirazioak itzaltzeko asmoz. Baina alferrik, tronuan eseri eta berehala Muhammed seme gazteena buru zuen matxinadak zalantzan jarri baitzuen bere agintaldia. Ozta-ozta lortu zuen semearen saiakera bertan behera uztea.

Hala ere, hurrengo urtean, 1392an, sultana modu misteriotsuan hil zen (ziurrenik, pozoituta), eta Muhammedek aukera baliatu zuen bere burua errege izendatzeko.

Aitak egin bezala, Muhammed VII. aren lehen lana familia eta gortea mehatxuetatik garbitzea izan zen. Zerrendan lehena bere anaia zaharrena zen, Yusuf, aitak ondorengo izendatu zuena. Salobreñako gazteluan giltzapetu zuen anaia nagusia, Granada hiriburutik 50 bat kilometrora. Hantxe eman zituen Yusufek hurrengo hamasei urteak, Muhammed VII.ak agintean eman zituen berberak.

1408an Granadako sultana gaixorik zegoen eta, heriotza gertu ikusita, ondorengotza ondo lotzea erabaki zuen. Bere semea errege izan zedin beste hautagai nagusia, Yusuf, eliminatu behar zuen. Ez zen nahikoa gaztelu batean giltzapean sartuta egotea, eta anaia hiltzeko agindu zuen.

OBJETIVO GRANADA

Alhambrako El Partal lorategietan zegoen Yusuf III.a sultanaren jauregia.

Heriotza-agindua idatzita zeraman mezularia Salobreñara iritsi zenean, Yusuf xakean ari zen alkaidearekin. Alkaideak gutuna irakurri zuen, Yusufi erakutsi zion, eta agindua bete beste erremediorik ez zuela esan zion. Yusufek, hil baino lehen emaztea ikusi nahi zuela esan zuen. Baina azken nahi hori ukatu zioten. Kondenatuak, orduan, jokatzen ari ziren xake partida hura behintzat bukatzeko eskatu zuen. Eta alkaideak beste nahi hori onartu zion.

Asko luzatu omen zen partida eta kondairak dio azkenean Yusufek irabazi zuela, alfil bat mugitu eta xake-matea lortuta.

Orduantxe, anaiaren agindua betetzea besterik geratzen ez zenean, beste mezulari bat iritsi omen zen Granadatik, oso bestelako mezua eskuetan: Muhammed VII.a hilda zegoen, eta Yusuf III.a nazarien dinastiako 14. errege izendatu zuten. ■

CHINESE PAINTINGS

Arrozak eraikuntzarako ere balio du

Bingjian Zhang buru duen ikerlari taldeak arrozari buruzko aurkikuntza bitxia argitaratu du *American Chemical Society* aldizkarian. Horren arabera, duela 1.500 urte Txinan arrozez egindako orea erabiltzen zuten eraikuntzan, harrizko blokeen arteko tarteak betetzeko. Karea baino eraginkorragoa zen tenperatura altuen eta hezetasunaren kontra eta lurrikaretan ere hobeto eusten zion. Amilopektina izeneko karbohidratoak ematen dizkio arrozari eraikuntzarako egoki bihurtzen duten ezaugarri horiek. Zhangen arabera, "garai hartako mugarri teknologiko nagusietakoa izan zen". ■

IRUÑEA,
NAFARROA
OINEZEKIN BAT

bikin batin

Nafarroa Oinez 2017
urriak 15 Lesaka

Ayuntamiento de
Pamplona
Iruñeko Udala

Estereo bat zur eta egur

TESTUA ETA ARGAZKIA:
Jakoba Errekondo
jakoba@bizibaratzea.eus

Suaren aldeko sukaldean, otorduak prestatzeko garrari eta otordua egiteko berotasunari duten balioa emateko sasoia da. Sua. Su egurrak sekula galdu behar ez zuen sona berreskuratzen ari da eta etorkizun oparoa du. Otordua prantatzeko ez, baina eraikinen berokuntzan gero eta ugariago ikusiko dugulakoan nago.

Zura eta egurra neurtzeko neurria da estereoa. Bai, zura bezala egurra. Zuhaitzean ikusten baitute batzuek zura bezala egurra. Nafarroako herri txiki batean ederki ikasi nuen lezio hori, Sakanan uste dut. Materialetarako egokia den zatia da zura, eta materialetarako balio ez duena egurra. Materiala zurajetarako eta arotz eta zurgin lanetan erabiliko da. Egurra aldiz, hesoletarako, kirtenetarako, sutarako eta abar. Su bakoitzak bere trikimailuak eta katramilak ditu. Ez dira gauza bera ogi labea berotu, karobian kareharria erre, txondorrean egurra egosi, sagarrak erretzeko edo lapikokoa bor-bor jartzeko ekonomika sutzea, zikiroa edo danbolinkada gaztaina sutan erretzea edo abaritzaren (*Quercus coccifera*) iduriaren bero bildua.

Estereoari helduta, enborrak, adakiak eta adarrak bere gordinean neurtzeko neurria da. Zuhaitzak eta arbolak eraisten direnean, bere horretan, bere borobilean osorik gihar, gizen eta azal, ahalik eta trinkoen pilatu eta metro kuboa betetzen duena, horixe da estereoa. Estereo izena grekoko στερεός hitzetik dator, eta "trinkoa" adierazten du. Egurra eta zura asko landu gabe dabiltzan lekuetan erabiltzen da estereoa: mendian, basoan, kamioietan, paper fabrikan, zerrategian... Gero landuko da: azala zuritu, kostera kendu, oholdu eta habeak egin. Horiek baliatuko dituzten aroztegian edo zurgindegian edo eraikuntzan estereo hitza ez dugu berehalakoan entzungo, zer esanik ez ebanisterian... Zenbat eta finagoa zura, orduan eta urrunago estereoa, finezia eta trinkotasuna bateraezinak balira bezala... Horrengatik ez ote da Nazioarteko Unitate Sisteman edo Sistema Metrikoan onartua? ■

IRAKURLEAK GALDEZKA

Galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.eus helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Kaixo, *Landareak lantzen* gida-liburua jaso berri dut eta zalantza bat daukat (oraindik): ez dut ulertzen zer den ilzaharra. Agur bat eta eskerrik asko.

Xabi Mercero (Basaburua)

Kaixo Xabi. *Landareak lantzen* gida-liburuaren azalaren hegalean edo barruko solapan argitzen du. Ilzaharra: ilargi betea ikusten dugunetik txikitzen ari den artean ilzaharra da, Ilargi berrira arte. Hau da, ilargi betetik ilargi berrirako tartea, gutxi gorabehera hamabostaldi bat.

Ilberriaren alderantzizkoa da. Ilberria handitzen ikusten dugun hamabostaldia da.

Euskaraz ilzaharra eta ilondokoa esaten zaio, Ilargi betearen ondorengo fasea adierazten dute biek. Gazteleraz *luna decreciente* eta frantsesez *lune decroissante* deitzen dute.

Kaleetako zuhaitzen hostoak, konposterako elikagai

Garazi Zabaleta
@tirikitrann

Konposta egiten dutenek ikasiak izanen dituzte dagoeneko emaitza egokiak lortzeko oinarrizko arauak. "Materia hezea eta lehorra bolumen berdinean nahastu", dio konposta nola egin azaltzen duen gidak oinarrizko arauetako batean. Materia lehor horien artean daude, besteak beste, udazken aldean zuhaitzak botatzen eta gure kaleak betetzen dituzten hostoak. Euskal Herriko zenbait herritan hasiak dira dagoeneko kaleetan bildutako hostoak aprobetxatzen eta herritarrei beren konpostera gehitzeko aukera ematen. Orio izan da gurean ekimena martxan jarri duen azken herria.

Hondakindegirako 'zabor' kopurua murrizten

Orain arte kale garbiketatik langileek jasotzen zuten guztia zuzenean hondakindegira joaten zela kontatu digu Amaia Usandizaga Orioko Udaleko arkitekto teknikoak. Udazken partean, kaleko hondakinen artean hosto kopuru oso handia jasotzen zuten garbitzaileek, eta horri probetxua ateratzeko jarri dute martxan ekimena. "Banaketa egitean, hondakindegira askoz material gutxiago bidaltzeaz gain, herritarrei ongarri naturala egiteko aukera ematen diegu", azaldu digu Usandizagak.

Orion kale garbiketa egiten duen enpresak proposatu dio Udalari hostoak aparte biltzea. Izan ere, inguruko beste zenbait herritan zerbitzu bera ematen dute, eta herritarren artean izan duen harrera ona ikusita Orion ere ongi funtzionatu zezakeela pentsatu zuten.

Nola funtzionatuko du?

"Erriberetako baratzeen inguruan puntu bat edo bi jarriko dira, eta kale garbitzaileek jasotzen dituzten hostoak bertan utziko dituzte pilatuta", azaldu digu Usandizagak. Konposterako hostook nahi dituen edonork bertaratu eta behar duen kopurua har dezake handik. Bestela, Udaleko telefonora deituta edo bertara azalduta ere zerrenda batean izen eman dezakete interesatuek, gero garbiketa zerbitzuko langileak jarriko dira harremanetan beraiekin hostoak non eta noiz utziko dizkieten zehazteko. "Ohiko garbiketarekin jasotzen diren hostoak izango dira eta, beraz, hostoekin batera, litekeena da bestelako zakarren bat ere tokatzea. Erabiltzaile bakoitzaren lana izango da horiek apartatzea", argitu dute Udaleko webgunean.

Hasi dira pixkanaka zuhaitzak hostoak galtzen eta kaleetako lurrak apaintzen. Batzuentzat hondakin, beste zenbaitentzat "opari", guztiak ados egongo dira, ziurrenik, hostoak birziklatzeko modu ezin hobea dela konpostatzea. ■

www.bizibaratzea.eus

JAKOBA ERREKONDOREN HITZALDIAK

Urriak 19: Hondarribia
19:00etan Kultur Etxean *Landareak Lantzen* Jakoba Errekondoren liburu berriaren aurkezpena.

Urriak 20: Basauri
9:30ean Ibaigane Kultur Etxean *Landareak Lantzen* aurkezpena.

Urriak 21: Bera
11:30ean Lurraren Egunaren baitan *Landareak Lantzen* aurkezpena.

Urriak 29: Tolosa
Bedaio auzoko Azoka Berezian, *Landareak Lantzen* aurkezpena.

EUSKAL HERRIKO AGENDA

Urriak 11: Iruñea
Tokiko produktuen Iruñeko II. Azoka, Gazteluko Plazan.

Urriak 11: Lakuntza
9:00etan hasita Kultur Etxean "Ekonomia soziala negozio eredu berri bat" zikloa egingo da eta 11:40an *Hiritik at: Ekonomia soziala lehen sektoreari begira* hitzaldia egingo da.

Urriak 12: Idiazabal
Idiazabalgo Baserritarren Eguna: herriko produktuen eta abelen erakusketa, herri bazkaria eta hainbat ekitaldi.

Urriak 12: Ultzama
Mikologia eta Ultzama ezagutzeko bisita gidatua, 9:00etan Larraintzarko Kultur Etxetik abiatuta. Mikologo adituarekin lau orduko ibilbide erraza. Izena emateko: info@parquemicologico.com edo 671814005 zenbakian.

ZURE HERRIKO EKINTZEN BERRI EMAN
edukia@bizibaratzea.eus helbidera idatzi edo www.bizibaratzea.eus webgunean bertan, oso erraz.

AGENDA OSOA NOIZNAHI IKUSTEKO
www.bizibaratzea.eus

GURE GAIAK DIRA GURE BALIOAK | PARTE HARTU ETA IRABAZI SARI HAUETAKO BAT

Aste honetako nabarmendua | *ETEN PROIEKTUA* | 2

Tratu txarren kontrako kantuak

2013ko azaroan aurkeztu zuten Itsaso Gutierrezek gidatutako ETEN proiektua. Tratu txarren kontra abesten zuten taldeen kantak batu zituzten bertan, bilduma hau osatuz: estilo, genero eta lurraldetasuna aintzakotzat harturik eta euskaraz eginik. Irizpide horiek zituzten talde asko batu ziren proiektura eta kantarik ez zutenek ere berria sortzeko prestuasuna agertu zuten. Azkenik, 22 talderen emaitza duzu disko hau: Itxaro Borda + Ekhi Vegas; Iheskide; Humus; Izate; Herri Oihua; 2zio; Sohano; Lukas Prest; Nx; Ero; Niketz; Napoka Iria; Skakeitan; Bostenbor; On; Hil aiari; Gaur ez; Sexplotion; Metralleta; Kokein; Nekez eta Humilitate.

Eragile hau hobeto ezagutzeko:

bf euskal herriko bilgune feminista

BILGUNE FEMINISTA

Diskoa erosteko: etentratutxarrak@gmail.com
Diskoa ezagutzeko: www.badok.eus/ahots-batean-eten-tratu-txarrak

#musika
#indarkeriamatxista
#autodefentsafeminista
#euskara

Urriko sariak

1

Kimutx liburuak
4 ale

2

Bilgune feministaren "ETEN tratu txarrak diskoa"
2 KD

3

Ekologistak Martxanen "Euskal Herria: ezkutuko zorra"
4 DVD

4

Mugarik gabeken "Defensoras: emakumeon eskubideen alde"
2 elkarrizketa liburuxka

Parte hartzeko: ✆ 943 371 545 | gunea@argia.eus | www.argia.eus/gunea

Eragilea bazara, zabalkunderako materiala baduzu eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan.

ARGIA Katalunian jarri nahi izan dugu

Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Lehengo astean txoko honetatik aipatu nizuen urriaren 1ean mundua bukatuko zela pentsatzen zutenei ere adierazi nahi niela egunak beti argitzen duela eta munduak aurrera jarraitzen zuela; ez nuela erreferendumaz hitz egin gura, eta Argia Egunaz jardun nizuen. Gaur ezin dut Herrialde Katalanetara begiratu gabe geratu.

Nahikoa analisi eta artikulu irakurria izango zara dagoeneko, eta ez dut uste nire lau iritzik ezer hobeto ulertzen lagunduko dizunik. Ez naiz aditua ezta aritua ere horretan. Baina kontatu nahi dizut nola bizi izan dituen urriaren 1aren bueltako egunak ARGIAko lan-taldeak. Nola lehiatu diren handienen alboan minutuz minutuko albiste zaparradan. Estrategia: *...Si jo l'estiro fort per aquí, i tu l'estires fort per allà...* (...Hik bultza gogor hortikan, ta bultza nik hemendikan...). Ezin zezakeen hobeto asma Lluís Llach-ek. Guztiok batera. Batzuk handik eta besteak hemendik, elkarlanean. Lehen aldia da ia lan-talde osoa gai beraren bueltan ari izan dena, gutxi batzuk Kataluniatik bertatik, eta beste gehienak erredakziotik, eta Euskal Herrian zeudenen artean txandak banatu zituzten momenturo albistearen jarraipena egiteko. Live Blogging eguneraketa sistema erabili ohi du ARGIAk webgunean horrelako albisteen berri emateko. Sistema honek ahalbidetzen du aldi berean pertsona batek baino gehiagok albistea editatzeko aukera izatea, eguneraketa berriak di-da batean sartzea eta abar.

Oraingoan ere, ordea, frogatuta geratu da komunitatearen parte-hartzearekin zenbat indartzen garen. ARGIAk urriaren 1a baino egun batzuk lehenago zabaldu zuen whatsapp zenbaki bat, Kataluniara joandakoek irudietan jasotzen zutena bertara bidaltzeko. Asteazkenetik hasiak ziren lehen mezuak ailegatzen, eta igandean informazio olatua heldu zen sare sozial horren bidez eta hainbat eta hainbat txokotako egoera ezagutu eta zabaltzea ahalbidetuz. "Bai lan-talde barruan eta, noski, bai kalean jendea borondatez lanean ikustea zoragarria da", esan dit kide batek.

Gustura dago ARGIA egindako lanarekin, "merezi izan du" entzun diot bati baino gehiagori, eta webguneko eta sare sozialetako zenbakiek ere lanaren fruituak erakutsi dituzte. ARGIAk interneten daramatzan hogei urteotako bisitarik gehien jaso dugu Kataluniako erreferendumaren jarraipenarekin. Prentsa askatasunaren eta askatasun guztien alde egiten segitzeko indarberrituta atera da ARGIA. ■

Kamixeta honekin Kataluniari buruzko informazio independentea bultzatuko duzu

Katalunian indar handienez entzuten den lema, "*Els carres seran sempre nostras*" (Euskal Herrian "Kalea gurea da" esaten duguna) dioen kamiseta eskuratu dezakezu www.argia.eus-en dendan. 13 euro ordainduta, 2 euroko ekarpena egingo diozu Kataluniako *Directa* herri hedabideari, eta 2 euroko ekarpena ARGIAri, Kataluniako independentzia prozesua epe ertainera ere zorrotz jarraitu ahal izan dezan. Urriaren 19tik aurrera jasoko duzu etxean. Informaziorik gabe ez dagoelako demokraziarik, kazetaritzan ere sustatu independentzia!

Directa-ren bideoari esker jarriko du salaketa begia galdu zuen gizonak

Herri komunikabideek testigu lana ere betetzen dute errepresio uneetan. Directako kamerak grabatu zuen argiki zein poliziak tirokatu zuen gomazko pilota zuzenean begia galdu-arazi zion gizonarengana. Irudi horiek izan dira salaketa jartzeko froga nagusia. Herri komunikabideen lana oinarrizkoa den beste seinale.

MARKETINA BELDURREZKO FILMEKIN AKABATZEN ARI DA

"Urteko beldurrezko film beldurgarriena", "sekulako beldurra pasako duzu", "Sitges-en estreinatu zen eta zorabioak eragin zituen"... amua heltzeko helburuarekin, azken urteetan genero honetako ekoizpen bat estreinatzen den bakoitzean, esaldi horiekin bonbardatzen gaituztela ohartuko zineten. Baina ez hori bakarrik, erabiltzen dituzten trailerrak ere ileak puntan jartzeko modukoak izaten dira. Behin filma estreinatu eta aretora joaten garenean ordea, ez al zaizue gertatu "ez zen hain beldurgarria izan" edo "ez dut batere beldurrik pasa" bezalako esaldiak ahotik botatzea?

Gaizka Izagirre
@Gaizka_Izagirre

Gure bizitzan beldur gehien sortu diguten filmetan pentsatzen hasten bagara, ziur, gure garuna 20-30 edo 40 urte atzera joko duela. Zer gertatu da bidean orduan? Beldurrarekiko immunitatea sortu dugu edo beste gauza bat saldu nahi izan digute?

Beldurra, urteen poderioz eta batez ere garai jakin horren testuinguruaren arabera, eraldatzen joan den kontzeptu bat izan da. *Godzilla* adibidez, Gerra Hotzaren garaian, eraso nuklearrarekiko zegoen beldurragatik sortutako irudia izan zen. Munstroak izan ziren hasieran, espirituak eta exorzismoak 70eko hamarkadan, *slasher* eta serieko hiltzaileak 80ko hamarkadan eta abar. Generoa munduan gertatzen zenaren eskutik zioan, gizarteak zuen beldurra fikzio moduan gauzatzen zen azken finean. Baina horiek saltzeko behar horretan, promozio kanpainak sartzen hasi ziren. 2017ra bueltatuz, eta adibide konkretuekin jarraitze aldera, eremu honetan aurten zalaparta gehien sortu duten hiru filmak, *Get out*, *It Comes at Night* eta *IT* izan litezke. Pertsonalki, sentsazio berbera izan dut hiruekin. Film interesgarriak, bikainak batzuk, baina beldurraren alderdia nahiko ahula. Hori bai, guztiak saltzeko erabilitako estrategia bera: "Urteko film beldurgarriena". Askok diote errua dela sorpresarekiko dugun gaitasuna galtzen ari garela. Ikus-entzunezko edukiak geroz eta gehiago, geroz azkarrago kontsumitzen ditugun mundu honetan, segundoro era guztietako irudi bortitzak irensten ditugulako batik bat. Gauza gutxik sortzen dutela harridura gaur egun, eta are gutxiago beldurra, jakina. Baina nire ustez, beste alderdi batek du erru handiena: marketin kanpainek.

Lehenik eta behin, filmak promozionatzeko erabiltzen dituzten trikimailuak iruzurtiak iruditzen zaizkit. Shyamalan zine zuzendariak *The Village* eta *Lady In the water* estreinatu zituenean adibidez, milaka ikuslek alde egin zuten haserre bizian zinema aretoetatik. Baina errua ez zen zuzendariarena izan, trailerretan agindu zizkieten munstro eta sustoak inondik agertu ez izanarena baizik. Frustrazio hori, adibidez, iazko *The Witch* bikainarekin sentitu zuten askok. Oso erraza da *teaser* tranpati bat sortzea edo kartel deigarriak diseinatzea jendea erakartzeko, baina gero zer? Epe luzera, desegiten den zerbait da. Drama generoko filmak saltzeko "malkoak" saltzen ez badira, zergatik beldurrezkoekin sustoak bai?

Eta bestetik merkezurreko efektismoa. Azken urteetako sortzaileen artean tendentzia kaskar bat hedatzen ari da. Aurtengo *IT* filmean oso argi ikus daitekeen zerbait da. Tentsio goreneko

'It' filmaren aurtengo bertsioarekin gertatutakoa adibide egokia izan daiteke beldurrezko filmen marketinak daukan problema ulertzeko.

uneetan, soinu oso bortitz bat sartzen dute eta mozketa zakar bat jarraian. Ikusleari "erne! hemendik bi segundotara susto bat dator" aurreratzen dio, bolumena %100 igo eta pun! Ikara sortua. Eserlekutik salto egin dezagun lortzen dute bai, baina sentitzen duguna, manipulaturiko izu artifizial bat besterik ez da. Golpe horiek ikaratu egiten gaituzte, izualdi txiki bat sortzen dute , baina ez dugu beldurrik sentitzen, inondik inora.

Dena den, pentsamendu positibo batekin amaitze aldera, *The Blair witch project* filma aipatu nahiko nuke. Marketinaren arloan, gauzak nola egin behar diren ikusteko eredu onena izan litekeelako. www.blairwitch.com webgunea ez zen filmari buruzkoa edo hura promozionatzeko sortua izan adibidez. Eta hortxe gaur egungo Hollywood-eko beldurrezko filmekin egiten denaren diferentzia nabarmena: webgunea, kasu horretan, filmaren parte zela. Narrazioak zinema aretoko pantailatik alde egin zuen eta ikuslea inguratzen jakin izan zuen, murgiltze konpleto baten biktima bilakatuz, aretora sartu baino lehen, baina batez ere irtetean. Beldurra ikuslearekin batera irteten zen eta asteak irauten zuen garunean. Inbertsio ekonomiko minimo batekin, mundu osoak film horri buruz hitz egitea lortu zuten. Gustuko ala ez, sinetsi ala ez, saltzen zuten hori eskaintzen zuten. Pentsa gainera zer nolako balentria izan zen, 1999. urtean Facebook, Twitter eta YouTube bezalako plataformak ez baitziren existitu ere egiten.

» Oso erraza da *teaser* tranpati bat sortzea edo kartel deigarriak diseinatzea jendea erakartzeko, baina gero zer?

» *The Blair witch project* filmak asmatu zuen 1999an nola promozionatu pelikula beste modu batera: eredu ona izan daiteke gaur egun ere

Beraz, argi eta garbi, tendentzia negatibo hauek ezabatzen ez badituzte, eta ikusiko dugunarekin bat egiten duten kanpaina zintzoak sortzen ez badira, luzera, beldurrezko filmekin akabatzen ari direla uste dut. ■

Elena Asins

Zientzia artea denean

Xabier Gantzarain
@gantzarain

IZENBURURIK GABE (1977)

Tinta zuria kartoi beltzean. 40 x 50 cm

Tartean-tartean gogora ekarri beharreko artista da Elena Asins Rodriguez (Madril, Espainia, 1940ko martxoaren 2a-Azpirotz, 2015eko abenduaren 14a), badaezpada. Bere lanak hain ematen du hauskorra, desagertzeko zorian dagoena, ezen ematen baitu inork zaindu ezean segituan galduko dela. Ez da hala, noski, zuk eta nik baino gehiago iraungo du.

Espainiako Reina Sofia museoan jarri zuen erakusketa eder bat 2011n. Orduan *Berria*n arte kritikak egiten zituen Oihana Garrok hauxe idatzi zuen: "Misterioa iruditzen zait arte munduan nola artista batzuk tontorrera heltzen diren eta beste batzuk ez. Orain arte, nahiko ezkutuan mantendu izan da Asinsen lana, nahiz eta egin dituen 40 bakarkako erakusketa baino gehiago, eta beharrezkoa zen bistaratzea. Haren lanak XX. mendeko abangoardiaren tradizio konstruktibista, 60ko hamarkadako informazioaren teoria eta ordenagailu bidezko artea nahasten ditu, horretarako arte optiko eta minimalismora ere arrimatuz. Labur esanda, Asins ordenagailu bitartez egiten den artean aitzindaria da, eta, era berean, ideia protagonista duen arte kontzeptualaren erreferente nagusietako bat".

Pariseko Arte Ederren Eskolan ikasi zuen, Madrilen ibili zen, Stuttgarten, New Yorken. 1980an New Yorkera joan zenean, Noam Chomsky ezagutu zuen, eta bere lana erakutsi zionean, hauexek izan omen ziren haren hitzak: "Hau hizkuntza bat da!".

Aitzindari eta erreferente, baina artearen mundutik aparte. Azpirotzen hartu zuen etxea, berak berritu, hantxe hil zen. "Arteak, edo transzendentziara egiten du, edo ez da artea. Nire lanak horregatik ez du batere zerikusirik modekin, eta horregatik bizi naiz hemen, Azpirotzen, beste alderdi hori ez dudalako maite".

Beste alderdi hori: eguneroko zurrunbiloa, munduaren zarata, bla bla bla bla bla. ■

IZV
KARI
PAGOA
KAFE ANTZOKIA
OIARTZUN
A:12€ / T: 14€
WILLIS
DRUMMOND
INOREN ERO NI
KOKEIN
ARGIA berria anoa
PAGOA
kafe antzokia
OIARTZUN
EUSKAL
GRABAZIOA
URRIAK 20
OSTIRALA
22:00

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Doluaren sigi-sigak

Iratxe Retolaza

Poz aldrebesa
JUANJO OLASAGARRE
Susa, 2017

Juanjo Olasagarraren nobelagintzan ezagun zitzaizkigun auziek zeharkatzen dute *Poz aldrebesa*: desira-minak eta sedukzio-jolasak, komunitate politikoen hersturak, sexu-askapenerako zein nazio-askapenerako borroken arteko talkak, biolentzia politikoa... Nolanahi ere, kezka horiek bestelako arkitektura narratibo batean gorpuztu ditu. Urrun du *Ezinezko maletak*-en camp kulturaren kutsua. Urrun du *T* (*tragediaren poza*)-ren saiakera-kutsua. *Poz aldrebesa*-n izan bada gogoeta-piezarik, izan bada pentsamendu teorikoaren adabakirik, baina, oraingoan orekari eutsi dio, eta pertsonaien nortasun sendo zein gatazkatsuetan datza nobelaren indarra. Joseba Aldaz eta Axi Iminizalduren arteko afektu- eta larru-harremanak ditu ardatz istorioak. Gauetik goizera Josebari Axiren zaintzaile izatea egokitu zaio (Axik memoria galdu ondoren, bihotzeko baten eraginez), eta mugarri horrek bultzatzen du *bikotearen errelatoa* birpentsatzera. Horri tiraka, bi maitaleen norgehiagokak, tirabirak eta konplizitateak aletzen zaizkigu, hogei urteren epe-aldian. Adinean gora egiteak ere hautaturiko bizitza-ereduaz gogoeta egitera darama Joseba, gizarte-eredu baten egonkortzearekin batera erroturikoa (instituzio autonomikoak, kontsumo-gizartea, familia-egiturak, eta abar). Besteak beste, gay komunitatearen barne-gatazkak dakartza gogora (identitate politikoaren auzia, sexu-rolak, joera misoginoak, fideltasunaren auzia...). Bide horretatik, Josebaren dolu-aroa beste dolu-egoera batzuekin solasean jartzen da:

Juanjo Olasagarre Mendinueta idazlea (Arbizu, 1963).

LGTB komunitatearen dolu-errituak eta dolu-oinazeak HIESAren gatazkaren aroan; Euskal Herriko gatazka armatuko biktimen dolu-errituak eta dolu-irakaspenak; eta abar.

Josebaren eta Axiren artekoa, bestalde, harreman-sare batean kokatzen zaigu, lagun-minekin, lankideekin zein senideekin hartu-emanean. Afektu-sare horretan ere nortasun indartsuak irudikatzen dira: Txato, Josebaren kontzientziaren harra, eta Etika Marikaren bozeramailea; Lander, Lokarriko kidea, eta nobio-minaren ajeak bizi dituena; Begoña, Kultura Sustatzeko Zuzendaria eta boterearen trikimailuetan trebatua; eta abar. Lagun-talde horretan badira otzantzeak, harrotzeak eta desleialtasunak; baina batez ere pertsonaien hauskortasuna irudikatzen zaigu, nahiz eta zaurgarritasun hori estaltzeko ahaleginetan bizi, eta autoengainuan, autogorrotoan edota autoerrukian gozo hartu.

Atzera-aurrera eta hara-hona garamatza nobelak, garaietan zein lekuetan, baina, pieza guztiak oso ongi josita daude, eta kateatzen zaitu nobelak, pertsonaien konplize isil bihurtzeraino. ■

» KONTZERTUA

Giro mistikoa

Montse Auzmendi

Musika saio bat gozatzeko elementu garrantzitsu bat, noski, taula gainean ikusi eta entzuten dugunaren kalitatea da. Baina ez da osagai bakarra, eta, batzuetan, ezta inportanteena ere. Badaude, kasu askotan, saioaren testuinguruko elementu batzuk, benetan baldintzatzen dutenak entzuleak hartzen duen inpresioa. Zumarragako Antioko Baselizan ematen diren kontzertuetan horixe gertatzen da. Zoritxarrez, amaitu da 34. Antioko Musikaldia, baina disfrutatu genuen azken kontzertu honetan, hango espiritualtasunak hartu gintuen eta une magikoa bizi izan genuen. Egun hotza, hezea, baina Antioko ermitaren barruan giro berezia sortu zen, kontzertua hasi orduko.

Giovanni Battista Pergolesik *Stabat Mater* lana bere bizitzaren azkeneko asteetan konposatu zuen. Sentimendu sakona eta sentsibilitate fina nabariak dira obraren zati guztietan. Bakarlariek lan dotorea egin zuten. Ahots biribilak erakutsi zituzten, giro hotza egonda ere, esan bezala. Ana Otxoa soprano bilbotarra adorez aritu zen, nahiz eta ñabadura gutxiko kantua eskaini. *Cuius animam gementem* pasartean, adibidez, ederki proiektatu zuen ahotsa, eta duo ederra egin zuen Marife Nogales mezzoarekin *O quam tristis et afflicta* zatian.

Agian Nogales mezzoak hobetu luzitu zuen bere ahots sakon eta haragitsua. Aise pasatzen da kantaria erregistro guztietatik, baina ertainekoa du bereziki distiratsua. *Quae morebat et dolebat* pasartea, beste batzuen artean, horren adibidea izan zen. Matizatua eta ondo fraseatua atera zen.

34. Antioko Musikaldia

EASO ESKOLANIA

Zuzendaria: Gorka Miranda.
Koruko Andra Mari Musika Kapera.
Organo-jolea: Oscar Candendo.
Zuzendaria: Andoni Sierra.
Bakarlariak: Ana Otxoa (sopranoa), Marife Nogales (mezzoa).
Egitaraua: Pergolesi-ren Stabat Mater.
Zumarragako Antioko Baselizan. Irailaren 30a.

Koruko Andra Mari Musika Kapera, Andoni Sierraren batutapean, doitasunez aritu zen, eta behar den taxu eta segurtasunarekin azpimarratu zuen ahotsen lana. Oscar Candendo izan genuen organo-jole adierazkorra, bestalde.

Baina benetako protagonistak Easo Eskolaniako gaztetxoak izan ziren. Mutilez osatutako talde honek (Euskal Herrian gaur egun bakarrenetakoa), Antzinako Musikan espezializatuta, eskarmentu handia du, eta nazioarteko orkestra eta zuzendari garrantzitsuenetakoekin aritu da. Aldi honetan, erabat afinatuta eta enpastatuta abestu zuten, eta elementu klabea izan ziren saioaren magia eta xarma hori sortzeko, dudarik gabe. ■

Donostiako Easo Eskolania Zumarragako Antioko Baselizan.

Gure kontraesanen alde

ZUMAIAKO KANPORAKETA

Urriaren 8an, Aitzuri pilotalekuan jokatu zen bosgarren final laurdena. Hauek parte hartu zuten bertsolariak, sailkapen taularen ordenean:
Nerea Ibarzabal (698,5 puntu)
Nahikari Gabilondo (661,5)
Miren Artetxe (661,5)
Arkaitz Oiartzabal "Xamoa" (627,5)
Asier Otamendi (617,5)
Ibon Ajuriagojeaskoa (616).

Kattalin Miner
@MKattalin
ARGAZKIA: ALBERTO ELOSEGI / XDZ

– Hara, gauza bat esango dinat: pozik natxion, baina ez konforme.

Nirekin ez da Ines etorri, baina bai lagun mordoa, isilik gutxitan egoten direnak, eta konforme ere apenas. Non eta Gipuzkoa kostero ederrean, agurrean Ibonek esan bezala, zortzi ditxosozko abizen basko, eta, *ojo al kristo* "roca dragon" deiturikoa grabatu diren Zumaia horretan. Horrek ja, halako inportantzia bat ematen zion saioari.

Eta zer nolako saioa! Une batez ere erortzen ez den horietakoa. Ados, inor aurreratu aurretik, ez, ez zen Leitzakoa izan, baina dudatzen hasi naiz hain urruti ibili ote zen (puntuetan bai noski, baina saio bezala eta giroan, ummm...). Nerea Ibarzabalek irabazi zuela; dudarik ala? Serio, bederatzi urteko ume batek, txutxe-dendako langileari bezela, nahiko nuke nik jakin, hala iruzur egiten. Berak ez gintuen engainatu ordea, irabazi egin zuen. Atzetik, Nahikari Gabilondo, txapelketatik txapelketara azaltzen zaigun akatsik gabeko bertsolaria fin. Eta, aizu, Miren Artetxe delako hori, nola igo zitzaigun parrara zortziko handitik? Kartzelakoa kartzelako, saio ederra eta segi aurrera, *amiga*! Xamoa ohituta gauzkanetik apur bat baxuxeago ez ote zen ibili, baina utzitako hainbat jasotzeko modukoak izan ziren, kartzelakoa bereziki. Asier Otamendirenean Playboy bati tiraka bertsotan gutxitan ikusten diren espero gabeko bira bizitu genuen kartzelakoan. Azkenik Ibon Ajuriagojeaskoa izan genuen, honek ere lehertu ez baina erori gabeko saioa utzi ziguna.

Eta begira, akaso, bertso-saturazioa da, edo jada eskean zabiltzatela (Olentzeroren pare, zerrenda egiten didazue aretoko atean kroniketan aipatu beharrekoekin), baina, epailetasun normatiboari egurra emateko garaia ez ote den. Eta Inesen faltan, lagunak ez ote zidan esan:

– Ez zain iruditzen saio batzuk (demagun Leitzakoa), puntuz puztuak izan direla? Eta aldiz, atzoko saioa zein gaurkoa, puntu baxuetara kondenatuta zeudela entzun aurretik?

Ez ote. Denok ditugu aldez aurreko espektatibak, eta "ni epaile banintz..." jolasean aise aritzen gara kabalak egiten. Baina serio, ni epaile banintz, asteburu honetan eskuzabalxeago arituko nintzen. Baina ni ez naiz epaile, eta Artetxek agurrean esan bezala, gure kontraesanen alde aritzea besterik ez dugu.

En fin, igandeko giroa itzela izan zela, behingoz *hooliganismoa* andreen alde paratu zela, eta saioa bero mantendu zutela seirek, goian, erorialdi handirik gabe. Bejondeiela. Aipatzekoa, berriz ere, Nerea Ibarzabalena. Ez dakit oraindik ongi azaltzen, baina hitz gastatu hori erabiltzen uzten badidazue, "freskotasuna" dela esango nuke. Gaiak hartzeko manera, arintasun sakon hori eta nola ez, keinukera eta espresioa oholtzaratzea.

Beraz horixe asteburuak utzitakoa, eta ez bazaude konforme, lagun baten amak hala omen dio: "ez da txapelketarik polemika barik". ■

Egilea: Ana Zambrano

Hitz gezidunak

Gaia: Nafarroa Oinez

- Tentea — Daukagu
- Saiak — Nekazaritza orga
- 2006
- Oka — Saldu aditzaren infinitiboa
- Landare belarkara — Bete
- Bits — Atarteak, atalaseak
- 2016 — Agataren barietatea
- Oinetako mota — Europioaren sinboloa
- 2013 — Barruko alde
- Apaizen jantzi luzea — 500 erromatar zenbakiz
- Azkar, korrika — Oinarrizko edari
- Intsektu hegalari eta jauzkaria
- Letra izena — 2011
- Atzizki toponimikoa — 2004
- Bilo, ule — Festak
- Oiloaren kantua
- Anperea — Letra izena
- Kiloa — Ostegun
- Lehen bokala
- Kazeta — Aldapa
- Area — Okaran
- Buruzagi erlijioso islamdarra — Otsoaren oihu
- Diru-laguntza — Herri hizkeran, bada
- Pare bat — Egunaren zati ilun
- Inertzia — Burdinola
- Suitzako ibaia — Euskal Telebista
- Betokerra — Begira
- Aurtengoa — Osasuntsu
- Hizkiak — Fosforoa
- Adore emateko hitza
- Bakoitzak bat

Sudokua

Bete itzazu gelaxkak 1etik 9rako zenbakiak idatziz, zutabe, lerro eta 3x3ko koadro bakoitzean errepikatu gabe.

	2							
6					2			8
		1	9	8				4
	5					1	9	6
	8		2		5		3	
9	4	7					2	
7				6	8	5		
5			3					2
							4	

5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.

1. Gela baten estalki.
2. Zurezko ontzi.
3. Borrokarik eza.
4. Sarbideak.
5. Gauza, zer.

Ebazpenak

5x5:

1. Sabai. 2. Abatz.
3. Bakea. 4. Ateak.
5. Izaki.

4	2	8	7	5	3	9	6	1
6	9	5	1	4	2	3	7	8
3	7	1	9	8	6	2	5	4
2	5	3	8	7	4	1	9	6
1	8	6	2	9	5	4	3	7
9	4	7	6	3	1	8	2	5
7	3	2	4	6	8	5	1	9
5	6	4	3	1	9	7	8	2
8	1	9	5	2	7	6	4	3

S	A	N	O		A	U	P	A		B	A	N	A						
	L	E	S	A	K	A		L	E	T	R	A	K						
U	L	U		B	E	G	I	O	K	E	R	R	A						
	A	G	A		B		B		I		A	A	R						
E	F	E							J	A	I	A	K						
	A		K							K	Z		A						
O	T	I	A							I	L	E							
		D	E						U	R		Z	A						
B	A	R	R	U	A	L	D	E		A	R	I	N						
	T	U	T	E	R	A		S	O	T	A	N	A						
D	U	G	U		E	S	K	A	L	A	P	O	I						
	Z		P		B		O		O		A		V						

Juan Luis Olaran. Idazle baino lehen sukaldaria izandakoa



Armintzan (Lemoiz, Bizkaia) 1945ean sortua, Juan Luis Olaran Sustatxa arrantzale, itsas gizon eta sukaldari izana da idazle baino lehen. Azkenaldion, erretiroa hartuta, hiru liburu idatzi ditu, tartean zentral nuklearraren inguruko *El contubernio nuclear, Lemoiz,* eta *Izarra* ontziaren afera kontatzen duen *Izarra baltza, historia de un barco pirata* aurkeztu berria. Afera biak bertatik bertara bizitzea tokatu zitzaion armintzarrari.

"Piratak itsasoan ibiltzen ziren antzina, gaur egun lehorrean geratzen dira"

Jabi Zabala
@sarean
ARGAZKIAK: ARITZ LOIOLA

Ihesaldi saiakera

"Sei hilabete eman genituen Calabarreko portuan atrakatuta, ontzitik ateratzen uzten ziguten baina ez genekien zer gertatuko zen, gainera, kondenatuko gintuzten zurrumurrua zabaldu zen. Kamerunera ihes egitea pentsatu genuen. Bi ihesaldi saiakera egin genituen barkuko batzuon artean, baina biek huts egin zuten. Han bagenuen lagun bat, Sony izenekoa, gauzak lortzen zizkiguna. Hark motordun txalupa arinak zituen mafioso batengana eraman gintuen, baina ez ginen fidatu. Bigarrenean bitartekari bati dirua eman genion ihes egiten laguntzearen truke. Tipoak dirua hartu zuen, eta adostu genuen hitzordua, geneukan diru apurra hartuta, baina hara heltzean polizia genuen zain... Saldu gintuen. Barkura bueltatu gintuzten, ez gintuzten salatu, baina dirua eta aldean generaman guztia kendu ziguten".

Idazle baino lehen sukaldari, eta lehenago arrantzale eta itsas gizona.

Bai, nire kasuan hala da: 13 urterekin herriko eskabetxeran lanean hasi, 15 urterekin itsasora, arrantzan, eta 16 nituela Bartzelonara, merkantzia ontzietara. Nabigatzen 25 urte eginak nituen *Izarra*-n itsasoratu nintzenerako.

Nolatan sartu zinen *Izarra* petroliontzian?

Ez nengoen oso konforme orduan nenbilen itsasontzian, eta lagun batek *Auma* ontzian sartzeko gonbita egin zidan, ondo irabaziko nuela, eta hara sartu nintzen, sukaldari. Hara heldu orduko esan zidaten "ez dakizu non sartu zaren, hau pirata hutsa da". Beraz, eskifaiakook susmoak bagenituen baina armadorearen eta kapitainaren kontuak ziren haiek.

Maniobra ilunak berehala sumatu zenituen ordea.

Ni Las Palmasen ontziratu nintzen *Auma*-n, han utzi baitzuen petrolioa, eta gero Tenerifetik gasolina eraman genuen Monroviara (Liberia). Bidaia normala izan zen hura, baina handik Kanariar irletara bueltatzeko jaso genuen agindua. Ez zirudien normala, printzipioz handik hurbil zegoen Nigeriara joan behar genuelako petrolioa kargatzera. Kanaria Handian, porturatu barik itsasoan ainguratu eta konponketa batzuk egin zituzten ontzian: tximinia margotu, ontzia desitxuratu eta izena aldatu zioten, *Auma* -ren ordez *Izarra* idatzita. Han argi geratu zen tranparen bat zegoela.

Nigeriara abiatu zineten orduan.

Bai, Bonny-ko portura, petrolio bila, baina hara heldu ginenean, erregistro liburuan ez zen ageri *Izarra,* noski, eta nigeriarrek ontzia errefusatu zuten. Kostaldetik hurbil ainguratu genuen, sartzeko baimenaren zain, baina jatekoa eta erregaia amaitzen hasi ziren. Kamerunera egin genuen orduan, armadoreak bidalitako diru apurrekin janaria erosi eta berriz Nigeria aurrera bueltatu. Nigeriarrak susmoak hartuta zeuden eta, egun batean, soldaduen patruila-ontzi bat hurbildu zen, airera tiroka. *Izarra*-ra igo eta ontzia arakatu zuten, arma bila. Gero portura eraman gintuzten atxilotuta.

Juan Luis Olaran Armintza jaioterriko portuan, Lemoizko zentral nuklearretik kilometro gutxira. "Garai hartan herritar gehienak zentralaren alde zeuden, lanerako aukera egongo zela ikusi zuten eta. Nik ez nuen nahi izan eta nabigatzen jarraitu nuen".

Hor hasi zen sei hilabeteko bahiketa.

Abenduan estatu kolpea emana zuten, 1983ko Gabon Zaharrean, eta gu 1984ko martxoan heldu ginen hara. Gobernu berriak aurrekoaren ustelkeriak agerian utzi nahi zituen eta... José Luis Peciña kapitaina eraman zuten eta petrolio trafikoan aritzea leporatuta, heriotzara kondenatu zuten. Gu sei hilabetez egon ginen ontzian bahituta, eta berak 25 hilabete eman zituen preso.

Arduradun nagusia hemen zegoen ordea.

Bai, José María López Tapia zen, Letasa ontzi enpresaren jabea. Krisian zegoen sektorea orduan, horregatik sartu zen negozio lohietan. Izan ere, enpresa guztiak desagertu ziren garai hartan. Egun Espainiak ez du itsas merkataritza enpresarik, turistentzako barkuez aparte: Armas, Acciona, Balearia eta kito.

Itsasoan ur handitan, zenbat pirata dago egun ere?

Piratak itsasontzietan ibiltzen ziren antzina, gaur egun lehorrean geratzen dira. Lehen parte baten truke aritzen ziren kortsarioak ziren, baina ontzian doazenak langile hutsak dira orain. Ustelkeria politikoa ere tartean dago, guk ekartzen genuen petrolioa Petrolífera Ducar-ek erosten zuen Las Palmasen arazorik gabe, gerora ministro izango zen Arias Cañete hor zegoen.

Beste liburu batean, *El contubernio nuclear, Lemoiz,* zentral nuklearraz jardun zenuen. Nortzuk nahastu ziren haren aldeko adostasun hartan?

Politikari eta instituzio gehienak, hemengoak zein Espainiakoak, Bizkaiko Aldundia esaterako. Debarako beste proiektu bat egon zen baina Gipuzkoakoak atzera bota zuen.

Armintzan, eta Lemoizko Udalean, zinegotzi moduan, nuklearrari aurre egin zioteneta-koa zaitugu. Denak zeuden kontra herrian?

Ez, herritar gehienak alde zeuden eta ulergarria zen, lanerako aukera egongo zela ikusten zuten eta hala zen, gehienok izan genuen bertan lanean aritzeko aukera. Nik ez nuen nahi izan eta nabigatzen jarraitu nuen.

Zentrala geldiaraztea herriaren garaipenarena ala ETAren mehatxuarena izan zen?

Bietatik pixka bat. ETAk ikusi zuen gizartearen gehiengoa zentralaren aurka zegoela, zilegitasuna bilatzen zuen eta hor sartu zen buru-belarri. Egia da ETA gabe ez zela zentrala gelditukо, baina tamalez hildakoak egon ziren eta hori ez da ahaztu behar. Bestalde, zentrala eraiki ezik azak jango genituela esan zuenak ez zuen asmatu. Nabarmen ikusi zen zentrala ez zela beharrezkoa. Orduan nuklearrak oso errentagarriak omen ziren, baina epe laburrean soilik.

Zer etorkizun du eta zein nahi zenuke zuk Basorda kalarako?

Lehenengo galdera zaila da erantzuten. Kultura arloko proiektuak egon dira, arrain haztegia, zentral termikoa... Ez dakit zer egingo duten. Lehengo egoerara bueltatzea ezinezkoa denez, akaso errazena harresia apurtzea eta itsasoa barruraino sartzen uztea litzateke, ergelkeriari monumentu moduan utzita. ■

Seny-aren bila ei dabiltza oraindik Espainia batuaren aldeko milaka laguntxo

Katalunia Espainian egotearen alde igandeko manifestazioan parte hartu zutenetako asko Bartzelonako kaleetan daude oraindik, beren zentzu komuna aurkitu nahirik. Despistatu piuradun baten adierazpenok jaso ditu Beranduegik: "*Recuperem el seny* zen leloa, alegia, berreskura dezagun zentzu komuna, eta guk aspaldi galduta daukagunez, ba etorri egin ginen. Baina *keba*, ezin aurkitu".

Konturatu gabe norbaitek *seny*-a etxera eraman ote duen susmopean, Ciudadanoseko boluntario talde bat Espainiako autobus konpainietara deika hasi da dagoeneko. "Arazoa da ez dakigula zehazki nolakoa den *seny*-a, ez baitugu sekula ikusi. Gainera, autobus asko dira miatzeko. Uf, hau nagia…".

Bestalde, manifestazioaren antolatzaileetako batek ukatu egin du bertan fatxak bildu zirenik. "Gu demokratak gara eta ez genuke horrelakorik onartuko. Eguzkiak bete-betean jotzen zuen aurpegietan, eta batzuek begiak babesteko eskua altxatu zuten, independentista manipulatzaileek maltzurki interpretatu duten keinua eginez".

Asteburuan Furgol Ligako partidurik jokatu ez zela aprobetxatuta, Bartzelonan giro ona sortzen ibili ziren espainiar ultra batzuk.

Eta azken ordukoa: Mario Vargas Llosak esan du independentismoa ez dela gauza sanoa eta Peru berehala Espainiaren parte izatera bueltatzeko kanpaina abiaraziko duela. Moncloak erantzun dio eskertzen diola adorea, baina hainbesterako ere ez dela.

SAREAN ARRANTZATUA

Katalan aspergarri horiek!

XXI. mendeko predikuak



Independentzia prozesua hasi zenetik euskaldunek %250 gutxiago ligatzen dute Katalunian

Ligatzeko ohiturak Kataluniako giro independentistan txostena argitaratu du beste urte batez ANCren nazioarteko kontaktuen bulegoak eta berrikuntza nabarmenak sumatzen dira. Urte askoan Herrialde Katalanetako casal eta ateneoetako *fucker* nagusiak izan ondoren, euskaldunen kotizazioak 250 puntu galdu ditu. Adituek nabarmendu dutenez, Kataluniako suhiltzaileak dira orain interakzio sexualerako lehen aukera gazte independentisten artean. Joera baieztatu dute Beranduegirekin hitz egin duten zenbait gazte katalanek: "*A veure*, euskaldunak ondo daude, baina gure *bombers*-en mangerak... Gainera euskaldunek hitz egin asko, edan asko-asko-asko, baina gero ez dute ohean errendimendu ikaragarria ere. Eta, bueno, ba... *així no*".

Urriaren 1ean Sant Pere d'Pantumac-en suhiltzaileek eskola aurrean herri harresia osatu zuten unea.

Jakoba Errekondoren liburu berria
Antton Olariagaren ilustrazioekin

LANDAREAK LANTZEN

2018ko ZURE LANETARAKO AGENDA



Hemen duzu urte osoan egin beharreko lanen egutegia, **sasoi** bakoitzari, **hilabete** bakoitzari eta **ilargialdi**ari lotuta: baratzean, fruitu arboletan, lorategietan eta basoan.

Lan hauek noiz eta nola egin ditugun jasotzeko aukera ematen du agenda honek.

LIBURUA ESKURATZEKO*

943 371 545
denda@argia.eus
www.argia.eus/denda

12€

*Jakoba Errekondok sinatzeko aukera

ARGIA
argia.eus

BIZI BARATZEA
bizibaratzea.eus

@bizibaratzea

Euskararen I. Plan Estrategikoa

NA 16-19.EUS

denon artean aurrera!

gurea, denona
euskara
de todos y todas

Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

euskarabidea